

Javier Sadaba:

"Euskal herritar rok erabaki behar dugu gure etorkizuna, zer izan nahi dugun eta norekin egon nahi dugun"

Garaiotan ezin uka daiteke etikak oihartzun txikia duela gure gizartean; beharbada horregatik, atsegin handiz entzun ditugu Javier Sadabaren hitzak, gai ugari menderatzeaz gain, zentzuzko iritzia ematen dituelako. Berarekin izandako solasaldian hainbat kontu izan dugu mintzagai: ideologiaren gainbehera, administrazioa, gaurko gazteria, 1968ko maiatza (Berliren harrapatu zuen bera), erlijioa, unibertsitatea, Euskal Herriaren egoera, genetikaren erronkak eta abar.



10. or.



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

8

Joseba Lozano
Zenbait gomendio,
euskarazko azterketa-
ko idazlana hobeto
egiteko

17

Jasone Osoro
Alkate jaunaren irudi
aldaketa

22


Iñigo Marcos
Herritarrei erantzute-
ko bulego integrala:
Irungo esperientzia

Herritar ren sare telematikoak

Herritarren sare telematikoei esker milioika herritar informazio-gizarte zibilaren munduan sartu dira. Etorrizuneko gizarte horrek, aro digitaleko ardatza izanik, berritzailea, partehartzailea, kritikoa eta informatua behar du izan. Horretarako, herritarren sare horiek honako oinarriok izan behar dituzte: komunikazioa, lan-kidetza, elkartrukeak, antolakuntza, eta tokiko komunitatea osatzen duten herritar eta elkarte guztiek informazio-teknologia berriak eskuratzeko erraztasuna. Beste hitz batzuetan esateko: pentsamendua, orokorra; baina ekintzak, tokian-tokikoak. Erreportaia honetan, aditu batek, Artur Serra irakasleak, herritarren sare-
en historia azalduko digu, euren ezaugarriak eta eskaintzen dituzten zerbitzu batzuk.

13. or.

Eztabaida: unibertsitatea edo lanbide heziketa?



Horixe da ikasleek eta gurasoek ikasketetan aurrera egin ahala aurkitzen duten bidegurutzea, eta, sarri askotan, baita gurutze-bidea ere. EAEn askoz ere ikasle gehiago matrikulatzen dira unibertsitatean lanbide heziketan baino. Hala ere, itaundutako aditu batzuek adierazi digutenez, poliki-poliki gaintzen ari da ikasketa bion arteko dikotomia, eta, badirudi onartzen hasi dela, ikasketa ezberdinak izanik, osagarriak ere izan daitezkeela. Nolanahi ere, bide luzea dago eginkizun, bai ikasketak gizartearen premia berriei egokitzeko bai oraingo uste edo aurriritzi okerrak gaintzeko.

20. or.



IRI GO ORDOZGOITI



Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zenbaki honetako lankideak:
Jon Abril, Antton Burgoa, Luis Elizondo, Antton Elosegi, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, Xabier Iriondo, IZO, Joseba Lozano, Luma, Inigo Marcos, Koldo Ordozgoiti, Jasone Osoro, Artur Serra

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatuz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

PERTSONAIA

Yolanda Alzola:

“Pertsonaia ezagunek gero eta pena gutxiago ematen didate”



Durangar honek 27 urte baino ez izan arren, kurrikulumen potolo-potoloa du: arte ederrak ikasi zituen Leioan, arte-dekorazioa Madrilan, logotipoak diseinatu ditu dendetarako, liburuak ilustratu, anagramak egin, tabernak dekoratu, altzariak zaharberritu, azafata ibili, iragarkietan parte hartu, telebistako programetan aritu (*Galaktika, Baietz Barrez Lehertu, Lo Que Faltaba, Aire-Aire, Benta-Berri eta Cosa de Dos*) eta lantxoren bat bi pelikuletan (Javier Rebolloren *Calor* eta Jose Luis Borauren *Ni-o Nadie*)

Zenbat aldiz bisitatu duzu Guggenheim museoa?
Askotan. Ehun aldiz joan naizela esanez gero, ziur ez dela gezurra.

Irudi eta diseinu kontuetan lan egin duzu batez ere. Ez al zaizu iruditzen irudiaren edo itxuraren diktadurapean bizi garela?

Hori betidanik gertatu da. Irudia garrantzitsua da, estereotipo edo kanon jakin batzuk badaude, baina hori ez da dena. Ondo dago itxura atsegina izatea, baina ez da zertan Claudia Schiffer bat izan.

Espanian *Hola* aldizkaria dago. Erresuma Batuan *Hello*. Frantzian *Allo* kaleratu berri dute. *Kaixo*-k etorkizunik izango al luke Euskal Herrian?

Beno, *Lo Que Faltaba*-k arrakasta du, beraz, zergatik ez? Beharbada, beste era batera prestatu beharko litzateke, eta bertako pertsonaiez hitz egin.

Zuk zerorrek eta Txetxu Ugalde lankideak behin baino gehiagotan esan duzue zuen programak gizarte-informazioa lantzen duela eta ez informazio “arrosa”. Zein da kontzeptu bion arteko aldea?

Biak antzekoak badira ere, badago alderik. Adibide bat jarriko dizut. Gizarte-informazioaren bidez esaten dugu zein egon zen festa batean, nola pasa zuten, musika zeinek jo zuen... Hor ez duzu txutxu-mutxurik esaten, albistea ematen duzu, eta jendeari hori jakitea asko gustatzen zaio. Informazio “arrosa” ematen denean, berriz, txutxu-mutxua dator, festan Urtia Berendiarekin egon zela eta bere mutil-laguna ez zegoela... Niri txutxu-mutxuek grazia egiten didate, ez ditut serio hartzen.

Telebista gehienek dute informazio “arrosari” buruzko programaren bat. Ikusleek eskatzen al dute?

Bai. Jendeari gustatzen zaio. Jendeak telebista entretenigarriak atsegin ditu egunerokotasunetik

ihes egiteko. Nik ez dut inoiz esaten gure programa ondo pasatzeko denik, hori larregi esatea da. Gure programa entretenitzeko da, denbora pasatzeko.

Mundu horretako pertsonaiaren bat ba al duzu bereziki gustuko?

Hemengo jendea normalean nahiko jatorra da, ez da faltsua. Esate baterako, La Otxoa oso lagun atsegina eta bihotz onekoa da. Hemengo jendeak lan egiten du eta oso errespetagarria da, ez dago aldizkarien kontura bizi den inor.

Prensa edo programa “arrosetan” atera nahi ez duena ez da ateratzen?

Hori egia da, nahi ez duena ez da ateratzen. Zuk ez baduzu nahi, ez zara sartzen zurrumbilo horretan eta kito.

Demagun oportetan zaudela hondartza galdu batean. Paparazziek 'top-less'-ean harrapatu zaituzte.

Top-less-ean atera nahi ez baduzu, bainujantzia ipini. Ezaguna izateak ondorio edo karga batzuk ditu. Argazkilariek ez harrapatzeko badakizu nora joan eta nora ez. Kontuz ibiliz gero, ez dago arazorik. Pertsona batzuk argazkiaren bila joaten dira, promozionatzeko, nahiz eta gero haserretu planta egin. Lehen pentsatzen nuen argazkilaria batzuk oso krudelak zirela, baina pertsonaia ezagunek gero eta pena gutxiago ematen didate.

Iruditzen al zaizu gu besteen poztasun eta tristurekin poztu eta tristetu egiten garela?

Ez, ikusten dugu beste batzuek ere arazoak dituztela eta gu ez garela sofritzen dugun bakarrak.

Gizonezkoek kontsumitzen al dute informazio “arrosa”?

Bai, emakumeek bezala. Gaur egun, gero eta konplexu gutxiago dago.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

Legezko Gordailua: BI-1141-93. Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Wellingtongo dukea 2. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 18 76 00. Faxa: 945 18 76 03. / <http://www.ivap.org>



Oposiziotik oposiziora

Azkenaldi honetan administrazioan lan egiteko oposaketa batean baino gehiagotan parte hartu dut. Horrelako prozesu batean sartzen ez zaren bitartean, ezin duzu pentsatu ere egin zer nolako gauzak gertatzen diren bertan.

Eta zuk, oposatzaile "sufritu" horrek, gainera, bertan ikusi eta jasandakoak ezin esan, adierazi, salatu. Gertatutakoak zuretzako gorde behar, badaezpada ere.


Baten batek esango du administrazioak gertatutakoak salatzeke bide ematen duela. Eta egia da. Baina lanpostua tartean dagoe-

nean, nor ausartzen da, gero, hurrengo azterketan berriz ere bere aurrean izango duen horren aurka egitera? Nork du halako ausardia?

Uste dut oposatzaileok administrazioan horrelako gaiak bidertzeko zerbitzu jakina izan behar genukeela. Oposaketetan sortzen diren arazoak sakontasunez aztertu eta oposatzaileon esku-bideak babestuko lituzkeen zerbitzua. OPOSATZAILEAREN BITARTEKARIA agian?

JOXERRA INTERÍNEZ
BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

✉ interinez@mindless.com



Hizkera hiperrargiaz

Herenegun arte jasan izan behar ditugun testu administratiboa eta juridikoak kontuan hartuta, eskertzekoak dira hizkera argiaren aldeko ahalegin eta aholkuak. Dударik gabe, zeren gauzarik normalena baitziren honelako testuak:

"Berehalako Ekintza-Egitamuk egipideratzeko Zati eta Bera -rizko Egitamu-egiterapentzat horiek ezarritako antolaketaren benetako egiterapen eta zaingorako beharrezko diren legezko eta gauzarik egiketa multzoak jotzen dira."


Nola harritu horrelako "antihizkuntzatik" ihesi euskaldunik euskaltzaleena ere erdal testuaren bila joatea? Izan ere, erdarazkoa ere "antihizkuntza" bazen ere, mundu horretan bere funtzioa betetzen zuen.

Euskal hizkera argitik hiperrargira lerratzeko arriskuaz zerbait esan beharra dago, ordea, oharkabean ez gaitzen pasa mutur batetik bestera.

Zeri deitzen diodan hizkera hiperrargia? Argiaren argitasunez, ume-hizkeraren edo "indio-hizkeraren" antza handiegia duenari. Jakina da umeei edo gure hizkuntza ezagutzen ez dutenei hitz egiteko hitz eta egitura simple batzuk bakarrik erabiliz moldatu behar izaten dugula; eta badakigu sakontasun maila batetik gorako zerbait azaldu behar zaienean nolako komerik egin behar izaten diren: errepikapenak, konparazioak, itzulinguruak, azalpen luzeak... Sarritan, gainera, hizkera horren mugak direla-eta, gaia saihestu, adierazi nahi genukeenaren erdia, edo antzekoa, esanda etsi behar izaten dugu.

Beldur naiz administratibotik ez ote zaigun batzuetan horrelako ume-hizkera egiten, gaizki ulertutako argitasun baten izenean. Gipuzkoako zein udaletakoa den salatuko ez dudan inprimaki elebidun bat dut eskuetan. Gaztelaniarazko bertsioa da jatorrizkoa, eta azken gomendioen jarraitzaile sutsu batek itzuli-egokitutakoa euskarazkoa. Inprimakiak, "Babes ofizialeko etxeak eskatzea" du izenburu eta helburu; hortaz, edozein herri-tarrek ulertu beharko luke. Euskaratzaileak, esan bezala, ongi barneratu bide du euskarak aditzak erabiltzeko joera sanoa duela, eta bide horri tinko eusten dio, hizkera argia egiteko proposatzen diren gainerako gomendioei bezala. Honelako bikoteak aurkitzen ditugu inprimaki elebidun horretan besteak beste:

Total de personas en la vivienda = Zenbat biziko zarete etxean; 1. Propiedad = 1. Jabe naiz; 2. Alquiler = 2. Errentan nago; 3. Cesión = Utzi egin didate; Metros cuadrados = Zenbat metro karratu ditu; Ingresos familiares totales (brutos-año) de todas las personas que convivan = Famili guztiak, etxe berean bizi zaiten guztion artean zenbat irabazi zenuten;



Informe técnico sobre habitabilidad de la vivienda = Informe teknikoa, etxea bizitzen egoteko moduan-edo dagoen esateko.

Zer du bada txarrik hizkera horrek, galdetuko du norbaitek. Alderdi on asko ditu, zuzena da, argia da, bai, baina aitortu behar dut kezka-puntu bat geratzen zaidala: argitasunaren izenean ez ote garen ari hizkera simpleegi bat bultzatzen. Esate baterako, aurreko adibidean, erdaraz (*brutos-año*) zehaztasunak, garrantzitsuak nire ustez, desagertu egin dira euskal bertsioan. Nire ustez, hizkera argiegia egin nahi izanaren ondorio txarra.

Hizkera zenbateraino erraztu behar ote den, edo norentzako argitu behar ote den, horra hor, nire ustez, ongi aztertu gabeko bi puntu. Herritarra gora eta herritarra behera, badirudi administratibotik euskaratzaile batzuk eskolatu gabeko amona base-rritarrentzat idatzi nahi dutela. Ez dut uste, ordea, tipologia horri egokitzen zaionik euskarazko testu administratiboen erabiltzailea.

Inolako ikerketarik egin ez dudanez ausardia izango da, baina egingo nuke administratibotik euskara erabiltzea aukeratzeko duena gehiago hurbiltzen zaiola beste eredu honi: gaztea, elebiduna, kaletarra, ikasketak euskaraz egin dituenak, kultur maila ertaina edo altukoa.

Horrelakoak badira euskal testu administratiboen irakurtzaileak, ez dut uste hizkera-maila egokia denik aipatutako inprimakia-rena. Are gutxiago ulertzen dut zergatik ukatzen zaion hiritar euskaldunari erdarazko-aren erabiltzaileari emandako informazioa.

Argitasuna bakarrik hartzen badugu gidari, zehaztasuna, informazioaren osotasuna, hizkera-maila eta beste ezaugarri batzuk ahaztuta, berriro ere ikusiko dugu euskalduna erdal testuaren bila. Horretan ere, puntua hartu behar.


Antton Elosegi
Euskara Teknikoko irakaslea

Euskararen erabilera gero eta handiagoa da, baina erritmoa apaltzen ari da

Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) 1997an egindako euskararen kale erabilerearen neurketan, euskal herritarren %13ak euskara erabiltzen duela ageri da. Aurretik egindako neurketekin alderatuta igoera badago, baina igoera hori moteltzen doa. Iparraldean, ordea, euskara atzeraka doa.

Biztanleen %22,5ak euskara menperatzen duela kontuan hartuta, erabilerearen kopurua altua dela uste du EKBk. Euskal hiztunen erdiak baino gehiagok hitz egiten du euskaraz kalean, eta horrek euskaldunek ahal dutenean euskara erabiltzen dutela erakusten du. Euskaldunak euskararekiko leialak direla esan daiteke, beraz.


1989, 1993 eta 1997 urteetan egin ditu EKBk kale neurketak Euskal Herri osoan. Azkenekoan 159 herritan egin da neurketa, Hegoaldeko 5.000 biztanletik gorako guztietan eta 5.000tik beherakoen lagin batean (%10), eta Iparraldean, 1.000 biztanletik gorako guztietan. Horien arteko datuak alderatuta, %32,5eko hazkundea izan da erabilerean 8 urteko epean. Iparraldean, ordea, beherakada nabarmena izan da, %27 jaitsi baita kalean euskaraz hitz egiten dutenen kopurua. Baina igoera horren erritmoa mantsotuz doa. Hots, 1989 eta 1993 urteen artean igoera eman bazen, eta 1993 eta 1997 urteen artean ere bai, bigarren epe horretan igoera txikiagoa izan da. Erabilereak gaina jotzekotan dagoela uste du EKBk. Nekez haziko da euskararen erabilera kalean hiztunen kopurua handitzen ez bada, kontuan hartu behar baita euskaldunok soilik euskaldunokin hitz egin dezakegula euskaraz. Hitzun kopurua handitzeko,



D eredia ez ezik, helduen euskalduntze-alfabetatzea ere indartu eta eragin beharra dago, EKBren aburuz.

Arestian aipaturiko Iparraldeko datuak erabat kezagarriak dira. Euskara galbidean da Iparraldean, ez soilik EKBk egindako kale neurketako emaitzei erreparatuta, 1996ko soziolinguistikazko inkestak ere antzeko datuak eman baitzituen. Neurri zorrotzak hartu behar dira euskara berreskuratzeko, eta abiapuntu euskararen ofizialtasunak izan behar du.

Erabilerearen bilakaeraren erritmoa 10.000 biztanletik gorako herrietan



Gipuzkoa euskaldunena

Lurraldeko datuei erreparatuz gero, Gipuzkoa da herrialderik euskaldunena. Herritarren %29,3ak hitz egiten du euskaraz kalean. Bizkaian erabilera %9,85ekoa da; %6,47koa Nafarroan; %6,35ekoa Iparraldean, eta %3,60koa Araban. Hiriburuei dagokienean, Donostia da euskaldunena, eta aldi berean hazkunderik handiena izan duena. Azken neurketan %14,06ak hitz egiten du euskaraz Donostiako kaleetan. Bilbo da bigarren hiribururik euskaldunena, %4,60ko erabilerekin, Gasteizen %2,88 hitz egiten da, eta Iruñean %2,86.

Euskararen erabilera baldintzatzen duen faktore nagusietako bat ingurunearena da. Eremua zenbat eta erdaldunagoa izan, erabilera gero eta murriztagoa da. Bide honetatik, toki administratiboen erakundeek euskararentzat neurri aurrerakoiak aplikatu dituzten lekuetan erabilerean ere aurrerapausoak antzematen direla nabarmendu behar da.

Adin tarteka, haurrak dira gehien hitz egiten dutenak, %14,75. Baina gazteen adin tartea da erabilerean gehien hazi dena. Hauengan erabilera %9,73koa da, eta zaharrenen %9,25a mintzatzen da euskaraz. Hala ere, zaharren talde honetan erabilereak jaisten jarraitzen du. Helduak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak, %8,75.

Egin diren beste zenbait azterketaren artean, azpimarragarria da gizon zein emakumeek antzera erabiltzen dutela euskara, kopuru beretsutan, alegia. Bestalde, elkarriketetan haurrak egoteak erabilera nabarmen igotzen du, %67,5 gehiago hitz egiten baita haurrak daudenean.

Beraz, euskaldunak hizkuntzarekiko leialak dira, erabilereak gora egiten du, baina ezagutzan aurkitu du muga. Ezagutza aragotzeko politikak eta neurriak jarri behar dira abian, batik batik Iparraldean eta hirigune handienetan.

Jon Abril
EKBko komunikazio arduraduna

Llei 1/98, del 23 de marzu, d'usu y promoción del bable/asturianu (BOPA nº73, del 28-III-98)

1978ko Espainiako Konstituzioak tradizio bateratzailea bertan behera utzi, eta gazteleraz gain, Espainiako beste hizkuntzak dagozkien autonomia erkidegoetan eta beraien autonomi estatutuen arabera ofizialak izango zirela aitortu zuen. Ez zen hori, ordea, asturieraren kasua izan. Asturiaseko Printzerriko Autonomia Estatutuak ez zuen bablearen ofizialtasuna aldarrikatu; Estatutuko xedapenek bablearen nolabaiteko babes ofiziala gomen datzen zuten 4. eta 10. artikuluetan, baina ez Estatutuak ezta beselako lege-dokumentuek ere ez zuten bablearen egoera juridikoari buruzko hitzik ere esaten.

Bablearen bide malkartsua

Egoera horrek, estatus juridikorik ez izateak alegia, normalkuntzarako neurri xumeenak ere ezinezko bilakatu ditu; azken finean, gazteleraren dialekto gisa hartu zenak, antza, ez baitu merezi beste hizkuntza ofizialen pareko neurririk. Horren guztiaren ondorioz, bablearen egoera gutxituak bere horretan segitu du legez eta egitez.

1980. urtean *Academia de la Llingua Asturiana* delakoa sortu zen, erabilera suspertzeko, eta, batez ere, bablearen aldaera guztien arteko batasun ortografikoa bultzatzeko. Tamalez, *Academia*-ren eta 1985ean sorturiko Hizkuntza Politikarako Bulegoaren saio guztiek ez dute legezko desberdintasun hori gainditzerik izan, aurrera eraman zitezkeen neurriek orma legalaren kontra jo baitute behin eta berriro –ikus, bestela, Auzitegi Konstituzionalaren 27/1996 epaia–.

Egoera horren aurrean, *Xunta pola defensa de la Llingua Asturiana*koek azken urteetan ezinbestekoa ikusten zuten, bablea galduko ez bazen, nolabaiteko legezko estatusa, eta horretarako, beharrezkoa zen Estatutuak eskaintzen zituen posibilitate juridikoak garatzea. Eskakizun horiek jasoaz, eta orain arte egindakoa finkatzeko asmoz, Asturiaseko Printzerriko Gobernu Kontseiluak Estatutuaren xedapenak garatu eta beste zenbait sektoretara zabalduko zituen *Bablearen Erabilera eta Sustapenerako Legea* onartzea erabaki zuen aurtengo martxoaren 23an.

Legearen hitzaurrean jasotzen denez, bable/asturianua berreskuratzeak neurri zehatzak eta bateratuak eskatzen ditu, azken urteetan emaniko ekintzen dispersioa alde batera utziz, hizkuntzaren babesa, sustapena eta erabilera modu eraginkorren kudeatzeko; eta horretarako, Lege lerruneko arau bat onartzea erabakitzen da. Aipatu Legeak administrazio erabilera, irakaskuntza, komunikabideak, idatzizko produkzioa eta toponimia ditu helburu nagusitza. Horretaz gain, organo aholkularien zerrenda bat ematen du, nolabaiteko organo ofizial bilakatzu ordurarte "de facto" aholkularitzako erakunde izandakoak.

Legeak, bere lehen artikuluan, "Hizkuntza" kategoria aitortzen dio bable/asturianu-ari, bertan bablea "Asturiaseko Hizkuntza Tradizionala" dela esaten duelarik. "Hizkuntza Tradizionala" izate horrek, ofizialtasunaren pareko estatusa ematen ez badio ere –Legean ez da *ofizialtasun* hitza inon agertzen– funtsean inoiz izan ez duen izaera juridiko bat ezagutzen dio, eta ondorioz, izaera juridiko berri horri loturik datozen zenbait eskubide/betebehar finkatzen ditu.

Legearen helburua herritarrek bablea ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta bermatzea da, horretarako beharrezkoak diren neurriak martxan jarriz. Neurriok galiziera-asturierarentzat ere aplikagarri dira aldaera hori berezkoa den guneetan.

Ilunbeen artean... argia

Helburu hori lortzeko martxan jartzen diren neurri nagusiak bost arlotan bilduta daude:

1) *Administrazio erabilera* (4., 5., 6., 7. eta 8. art.). Herritarrek Printzerriko administrazioarekin dituzten idatzizko zein ahozko harremanetan bablea erabiltzeko eskubidea dute. Hori lortze aldera, administrazioak beharrezkoak diren neurriak jarriko ditu, batez ere, langile publikoen ezagutza mailari dagokionean. Bablearen ezagutza oposaketa zein lehiaketetan meritu gisa kontutan hartu ahal izango da, lanpostuaren izaerak eta egin beharrekoez hala eskatzen badute.

2) *Irakaskuntza* (9., 10. eta 11. art.). Administrazioak bablearen irakaskuntza bermatuko du maila eta gradu guztietan, eta, guztienez, derrigorrezko irakasgai gisa irakatsiko da ordutegi normalaren barruan. Horretaz gain, neurriak jarriko ditu Printzerriko gobernuak bablearen erabilera areagotzeko irakaskuntza sistema osoan.

3) *Komunikabideak eta produkzio editoriala eta ikus-entzunekoa* (12., 13. eta 14. art.). Administrazioak bablearen defentsa bermatuko du komunikabide publiko zein pribatuetan. Komunikabideetan eta idatzizko produkzioaren arloan administrazioak sostengu ekonomikorako planak onartuko ditu, hori guztiori, komunikabideek bablea erabil dezaten. Hori bermatzeko eta eredu modura, administrazioak zuzentzen edo babesten dituen irrati, telebista edo bestelako komunikabideetan bablearen presentzia egokia ziurtatuko da.

4) *Toponimia* (15. art.). Autonomia Erkidegoko toponimoek modu tradizionalan mantenduko dituzte beraien izen ofizialak. Modu tradizionalaz gain, gaztelerako modua ere nahikoa orokorra bada, modu elebiduna erabili ahal izango da.

5) *Aholkularitzarako Organoak* (16., 17. eta 18. art.). Legeak ezarritako zereginetarako, administrazioko organo aholkulari izendatzen dira Uviéuko Unibertsitatea, *Academia de la Llingua*, *Xunta de Toponimia* eta *Real Institutu d'Estudios Asturianos*.

Beste autonomia erkidegoetako hizkuntza normalkuntzako legeekin alderatuta, motza gerta dakiguke bable/asturianuaren Legea, baina Lege honen garapenak emango digu Legearen benetako garrantziaren neurria. Besterik ez bada, aurrerantzean, eta aspaldian ez bezala, asturiarrek arro esan ahal izango dute, inongo akats juridikorik egin gabe: L'Asturianu ye una Llingua!!

Xabier Iriondo
HAEEko legeraria

Zenbait gomendio, euskarazko azterketako idazlana hobeto egiteko

Gauza jakina da azterketa bat gainditzeko ez dagoela errezeta magikorik, eta are gutxiago, hizkuntza-aren ezagupena egiaztatzeko azterketa baldin bada. Hala ere, EGA, hizkuntza eskakizunak eta horrelako probak egin behar diren bakoitzean, lagun pilo batek jotzen du irakasle, aztertzaile eta adituengana aholku bila: “Aizu, nola idatzi behar dut aprobatzeko?” Bada, oraingoan, gauza bera egin dugu geuk. Aztertzaile horiekin harremanetan jarri eta euren gomendioak jaso. Ea baten bat baliagarri gertatzen zaizun.

1 Azterketa behar bezala prestatzeko komenigarria izaten da aldez aurretik kalitatezko testuak euskaraz irakurtzea. Ikusi nola aritzen diren idazle onak, aztertu beraien idazkera, eta buruan gorde gehien gustatzen zaizkizun egiturak, hitzak eta esamoldeak.

2 Saia zaitetz jarriko dizuten gaia asmatzen. Kontuan izan aztertzaileak arazo bera izaten duela gaia aukeratzeko orduan, eta, horrelakoetan, gaurkotasuneko gaietara jotzen duela gehienetan (egunkarietako berriak, aldizkarietako artikuluak...).

3 Praktikatu behin eta berriro, eta, ahal izanez gero, azterketaren baldintzak errespetatuz (denbora, luzera...). Gero, aberasgarria izan daiteke dakien bati testua ematea eta zuzentzeko eskatzea.

4 Honaino helduta, ohartxo bat: azterketara prestatuta eramaten diren idazki-zatiei (sarrerak, amaierak) igarri egiten zaie normalean. Batzuetan, tokiz kanpo daude; beste batzuetan, ez dute zerikusirik handirik idazlan osoaren maila eta tonuarekin. Hitz batean: ez zaizue komeni horrelakoetara jotzea. Horrek ez du esan nahi, jakina, den-dena inprobisatu behar dugunik. Zenbait gauza landuta eraman daitezke, adibidez, esaldien arteko lotura batzuk etab.

5 Prestatu ondo azterketara eraman behar duzun materiala: karneta, boligrafoa, ezabagailuak...

6 Aztertzaileek gai edo egoera bat proposatuko dizute idazlanean, eta zuk egoera hori benetakoa balitz bezala jokatu behar duzu. Demagun zinegotzi bati idatzi behar diozula zerbaitetarako. Idatziozu, ba, serio, eta egiazko gutuna bidaliko bazenio bezala, aztertzaileak zinegotzia bailitzan begiratuko baitio mezuaren funtsari.

7 Banatu denbora, hiru ekintza hauek kontuan izanik: eske-ma, idazlana bera eta zuzenketa. Eskaini aldi bakoitzari merezidituen minutuak.

8 Eskema egiten emandako denbora ez da lan alferra; izan ere, eskema on batek gaiaren garapen egokia ziurtatzen du, eta inprobisazioa baztertzen. Bestela, ideiak agortu, eta aginduta-

ko lerroak idatzi nahian, noraezean ibiliko gara eta betelanean hasiko.

9 Errespetatu ematen dizuten gaia eta proposatzen dizuten idazki-mota. Ez tranparik egin.

10 Irakurri arretaz azterketako oharra, baina ez kopia hitzez hitz argibideetako esaldiak eta adibideak.

11 Idazten hasi baino lehen pentsatu ondo zein den idazkiaren helburua (informazioa ematea, zerbait eskatzea, konbentzitzea...), zein eragin sortu nahi duzun irakurleengan (harritzea, zure aldeko bihurtzea...), nolako tonua erabiliko duzun (formala...), eta abar.

12 Litekeena da euskara zure ama-hizkuntza ez izatea edota erdara baino gutxiago menperatzea. Jakin ezazu euskaraz idazterakoan zure mailak zeozer jaitsi behar duela ezinbestez; hau da, erdaraz esaten dituzun gauza batzuk edo esaten dituzun moduan nekez eman ahalko dituzula euskaraz. Hori onartzea eta apaltasunez jokatzeko abiaburu ona izaten da.

13 Eginahalak egin euskaraz pentsatzeko, eta ez gaztelaniaz. Egizu kontu gaia ahoz azaldu behar duzula, hizketan. Horrek izan behar du zure abiapuntua, eta hortik aurrera, nahi duzun bezala apaindu idazlana, beti ere, euskal diskurtsoan oinarriturik.

14 Aztertzaileek gutxieneko abstrakzio maila eskatu ohi dute. Istorioak, pasadizoak... ondo daude eta onargarriak dira, gaia eta argudioak biribiltzeko. Baina, maiz, idazlana anekdotetan oinarritzea adierazpen pobreziaren erakusgarri izan daiteke.

15 Komunikagarritasunak izan behar du gure helmuga. Aztertzaileak behin bakarrik irakurri beharko luke esaldi bakoitza; hortaz, ez luke zertan ibili saltoka esanahiari antzemateko. Hori dela-eta, testua zuzentzerakoan kontuan izan behar dugu guretzat argi eta garbi adierazita dagoena irakurlearentzat ilunagoa izan daitekeela. Beraz, zalantzarik badago, hobe berridaztea.

16 Ahalegindu zaitetz letra onez idazten aztertzaileak ez nekaratzeko; eta, aukeran, letra txikiz; bestela, aztertzaileek ezin dute neurtu nola erabiltzen dituzun letra larriak.

17 Izenburuak, azpi-izenburuak, oinoharrak eta horrelakoak lagungarriak izan daitezke testua egituratzeko.

18 Erabili lerroaldeak azpigaiak garatzeko.

19 On da papera aurreztea, baina utzi arnasten testuari. Marjinak eta zuriuneak eskertzekoak dira, gutxiago idazteko aitzakia gisa hartzen ez badira, behintzat.

20 Idazlanen ehuneko handi batek "ohiko" hasiera izaten du, adibidez: *Gaur egun argaltzea da gure gizartea gehien kezkatzen duen gaietariko bat*. Ez ahaztu lehen lerroaldeak aztertzailaren arreta erakartzeko balio duela, eta bide ugari dagoe-la horretarako; horietako bat, originaltasuna.

21 Idazlanaren azken lerroaldearekin agur egiten diozu aztertzailari. Presaka ibili arren, testu bat ezin da edozein modutan amaitu. Ahalegindu zaituz, beraz, zure idazlanari nolabaiteko betetasuna ematen.

22 Idatzian aurrera egin ahala, kontzentrazioa galdu egiten da askotan, eta, horren ondorioz, akatsak pilatu egiten dira bukaeran. Eutsi kontzentrazioari, izan ere, hasiera onek ez dute ezertarako balio, behin erdialdera helduta hanka-sartze guztiak biltzen badira.

23 Idazten ari zarela, aukeratu hitz egokiak eta zehatzak, azaldu nahi duzuna adierazteko.

24 Gehienez ere 20-25 hitzeko esaldiak idaztea komeni da ideiak jorratzeko. Edozein modutan ere, monotonia hausteko, esaldi luzexegoak eta laburtxoagoak tartekatu, erritmoarekin jokatu.

25 Testuaren baitan perpausek elkarrizkari uztarturik egon behar dute; eta lerroaldearen artean ere halako lotura bat beharrezkoa da, horrek bideak urratzen baitizkio ideien garapeneri.

26 Arestian esan dugu idazten hasi aurretik garbi izan behar dugula zein den gure helburua eta baita testuan barrena erabiliko dugun tonua ere. Hori horrela, zenbait idazki formaletan tokiz kanpo egon daitezke honelako esamoldeak: *kristona, demasa ...*

27 Azterketari askorentzat, puntuazio-zeinuak jartzeko garaian, eta kasurik hoberenean, koma eta puntua besterik ez dago; eta, batzuetan, gaizki erabilia. Gogoratu bestelako zeinuak ere hortxe ditugula eta testua antolatzen laguntzen ditugutela: galdera eta harridura markak, efektu erretoriko batzuk sortzeko; parentesiak eta marra luzeak, azalpenak esaldi nagusitik kanpo ateratzeko; eta horrela... asko eta asko.

28 Egitura batzuk, nahigabe, errepikatzen joera daukagu, eta testuak *-(e)larik, -z, bait* eta horrelakoez betetzen dira. Azterketa egin baino lehen, aztertu zein diren zure errepikape-nak eta saiatu kontrolatzen eta parekoak bilatzen.

29 Aztertzailak ezin du jakin zuk esaldi bat izan duzula buruan eta ez duzula asmatu behar bezala idazten. Ideia bat emateko modu asko dago, eta bide batetik abiatuta irteerarik aurkitzen ez baduzu, atzera bueltatu eta berridatzi beste era batera. Azken batean, zeuk kontrolatu behar duzu arriskua eta, beraz, idazkia; ez alderantziz.

30 Azterketa egin behar duen jende askok uste du gramatikako zailtasunetan oinarritu behar duela bere idazlanaren garapena; hau da, zenbat eta subjuntibo eta baldintza gehiago sartu, orduan eta aukera handiagoa izango duela aztertzailak lilurtzeko, eta ondorioz, azterketa hori gaintzeko. Kontuz horrekin. Idazlan bat ezin da aurrera atera, euskaltegian ikasitako guztia biltzeko aukera izango balitz bezala. Idazlan batean gai bat jorratu nahi dugu ideia batzuen bitartez; horrenbestez, hasierako eskeman jasotakoa garatzera jo behar dugu, ustez nota ona eman behar diguten baina tokiz kanpo egon daitezkeen kontuak bazter utzita.

31 Idazten ari zarela, gelditu noizean behin, irakurri idatzitakoa, eta gustura ez bazaude, berridatzi. Berridatze gogoratu irizpide nagusia: irakurtzerakoan, zu zeu, trabatuta geratzen bazara, seinale txarra.

32 Amaitzeko hamar edo hamabost minutu falta direnean hasi zaituz zuzentzen, eta ahal dela, modu sistematikoan (ortografia, joskera...).

33 Arreta handiz begiratu aztertzailak ere arreta handiz begiratu dituzten gauzak (ergatibo markak, pluraltzailak...), edota etxean edo klasean egiten dituzun idazlanetan gehien errepikatzen dituzun akatsak (ergatibo pluralak, erlatiboak esaldiak eta konpletiboak nahastu...).

34 A!, ez ahaztu: aldaketa bat egiten duzun bakoitzean, begiratu ea nahi gabe arazoren bat sortarazi duzun komunztaduran.

Aholkuak aholku, hona hemen azken gomendio bat, programatik kanpoko, baina, nire ustez, garrantzitsuena: gozatu idazten eta idatzi gozatuz. Azterketa batek egoera larrian jartzeko bazaitu ere, ez ibili estu eta larri: saiatu aztertzailari erakusten zein ondo idazten dakizun.

Joseba Lozano

HAEeko administrazioko hizkeraren arduraduna



Javier Sadaba:

"Espainiako Estatuari gogoraz behar diogu autode-terminazioaz eta independentziaz hitz egitea ez dela bekatua"

Javier Sadaba bizkaitarra Etikako katedraduna da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Liburu eta artikuluko ugari idatzi ditu hainbat gai jorratuz: bizitza, heriotza, erlijioa, etika, politika... eta, azken liburuan, bioetikari heldu dio eta zientziak gure eguneroko bizitzan sortzen dituen zalantzen irtenbideak aztertu ditu. Urtero, hilabete inguru ematen du Donostiako Antiguako, eta hantxe hartu gintuen. Hala ere, atsedena gutxi izan du udan, Menendez Pelayo eta Escorial-eko udako ikastaroetan parte hartu baitu. Donostian zela, *Egin* egunkariaren eta irratiairean itxieraren kontrako manifestazioan ere izan zen.

Azken urteotan luze-zabal hitz egiten ari da ideologiaren gain beheraz. Politikan gero eta alde txikiagoa omen dago eskutiko eta ezkerreko alderdien artean.

Anti-ideologia asko eta handiak daude. Irabazi egin dute proposamen aniztasunik eta aldaketarik ez izatea nahi dutenek. Azken finean, horietatik dira pentsamendu bakarra biltzen dutenak, eta korronte nagusiaren barruan ez dagoena erota dela diotenak. Jakina, egon, badaude eskuin bat eta ezker bat, baina ez esaten dizkigutenak. Eskuinak pentsamendu erreazionarioa eta kontserbadorea izaten jarraitzen du; ezkerak, berriz, pentsamendu morala eta justizia unibertsalaren aldekoa izan beharko luke batez ere.

Nolako harremana duzu administrazioarekin?

Harreman estua, neronek ere funtzionarioa bainaz. Espainian funtzionario asko daude eta badirudi gaur egun zerbait izatea bankari batek adina diru edukitzea edo funtzionarioa izatea dela. Bestela esanda, halako mauka dela herri-langile bihurtzea.

Unibertsitatean beharrezkoa da lan-egonkortasuna, baina, era berean, lotsagarria da norbait, oposaketa batzuk gaitortu ondoren, bizi guztirako funtzionarioa izatea, libururik edo letrarik idatzi gabe eta apunte zaharrek lan egiten. Unibertsitatean, egonkortasunaz gain, exijentzia eta egiten denaren kontrol etengabea behar da. Alde horretatik, administrazioaren erreforma da herrialde honetako premiarik larrienetakoa.

Unibertsitateko irakaslea zara, eta, beraz, harremana duzu ikasleekin. Azken aldian, "X belaunaldia" bezalako kontzeptuak alpatu izan dira, gazteek ez dutela balorerik esan izan da, ez dutela ezertan sinesten... Horrelakoa al da errealitatea?

"X belaunaldia" kontzeptua EEBBetatik etorri zen eta hango gazteria islatzen zuen. Orokorrean, egiazkoa zen kapitalismoa-

ren garapen gordinenari buruz egiten zuen azterketa: oso gazte berehalakoak, zuzenak, dirua azkar irabazi nahi dutenak, oso garaiz "gazte-zahar" bihurtzen direnak...

Espainiako gazterian hiru joera ikusten ditut nik. Alde batetik, gazte europearra, teknokrata, korrontearen alde doana, atentatu baten ostean manifestaldietara joango dena, baina gero GALEkin kezkatzen ez dena edo jarrera inkonformistatik ez duena.

Bestetik, izugarriko goranahia dutenak. Zirrikitu guztiak aprobetxatzen dituzte edozein postutan gora egiteko. Uste dute gizartean oso azkar eta asko jokatu behar dela pokedarean, apustu handiak egin behar direla.

Gero badago baikorra izaten laguntzen didan talde txiki bat, nahiz eta gero eta handiago den eta indar gehiago duen. Politikari dagokionez, intsumisioan daude eta askatasun handiko ikuspegia dute giza harremanetan. Alderdi politikotatik urrun daude eta oso eklektikoak dira. Horiekin askatasun-etzanda handiak izango dira.

1968ko maiatzeko gertaerak hain garrantzitsuak izan ziren, edo puztu egin dituzte gure gurasoek? 1968ko maiatza oso garrantzitsua izan zen arrazoi askorengatik, sinboloengatik esate baterako. Objektiboki, gauza asko gertatu ziren: ezkerrearen barruan intelektualek eta kulturaren ugaltzea, eztabaida handi eta interesgarriak... eta zuek ezagutu ez duzuen zerbait: garra, ilusioa. Ezker abertzalean, esate baterako, hutsune hori sentitzen dut faltan, ez dutela sortzen barne pentsamendu kultural indartsua.

Gizartea gero eta sekularragoa da eta erlijioak ez du hain besteko indarrik, nahiz eta oraindik elizak botereari eusten dion.

Badago erlijiotasun bat, izugarri negatiboa eta indartsua: sektena edo sasierlijioena. Orokorrean, gizartea laikoagoa da, baina for-

Humanitateen eta
filosofiaren
kontrako erasoa
ideologiaren
aurkako erasoa da

mula eta sekta berriak sortzen ari dira egunetik egunera; eta hori eguneroko kontua da mundu zibilizatuan. Hori arriskutsua da benetan, politikan eta gizartean gertatzen diren gabezia handien adierazlea delako, eta, itxuraz behintzat, hutsune horiek betetzera datorrelako. Hala ere, badago beste sasierlijiotasun bat, aipaturiko horiek baino zitalagoa: hain zuzen ere, seme-alaben jaunartzeetan sekulako dirutzak gastatzen dituztenena edo elizan ezkontzen direnena. Horra hor, erlijioaren forma txarrenen onarpen lotsagabe eta zinikoen.

Erlijioaren irakaskuntzaren inguruan sortzen diren eztabaidak direla-eta, zein da zure iritzia?

Erlijioen historia irakatsi behar da, baina, irakatsi, erlijioaren ikuspegitik neutroak diren irakasleek irakatsi behar dute. Ez du balio erlijioa gaur egungo moduan irakasteak. Konstituzioaren kontrakoa da konfesionala ez den estatu batean erlijioa derrigorrezko ikasgai gisa irakastea. Nik erlijioen filosofia irakasten dut, eta lan benetan atsegina da planteamendu gaurkotuak egitea, esate baterako, zientziaren eta erlijioaren arteko harremana aztertzea. Nire ustez, akats nabaria da norberaren mitoak ez ezagutzea. Garbi dago mito horiek ondo ezagutu behar direla, baina doktrinamenduan erori gabe.

Gazteek karrera teknikoak aukeratzen dituzte batez ere, eta badirudi karrera humanistei garrantzia kendu nahi zaiela. Humanitateen eta filosofiaren kontrako eraso, azken batean, ideologiaren aurkako eraso da. Beste era batera esanda: ahalegin bat da jende guztiak bereari buruz jakiteko, baina hortik kanpora, munduaz deus ere uler ez dezan. Hori da jendea menperatzeko modurik onena. Agintzen duenak jendea lehiakorra izatea nahi du, baina, aldi berean, ezertxo ere ez pentsatzea bere eskubidei buruz edo egoera aldatzeko dauden aukerei buruz.

200 intelektualekin batera itun bat sinatu zenuen Madrilen, "elkarrizketa bidezko irteeraren alde" eta pentsamendu bakarraren monopolioaren kontra. ETArri borroka gelditzeko eska dakioke, su-etena; halaber, Espainiako Estatuari mundu guztiarekin hitz egiteko eska diezaiokegu, beste eredu batzuei begiratzeko, hegazkina hartu eta behar denarekin mintzatzeko, Tony Blairrek egiten duen moduan. Espainiako estatuari gogorarazi behar diogu autodeterminazioaz edo independentziatz hitz egitea ez dela inolako bekatua, eta gai horietaz eztabaidatu egin behar dela. Hori guztia



aldarrikatzea zaila da, eta are zailagoa, komunikabideetan islatzea. Hauze zen, beraz, manifestuaren helburuetako bat: negoziatioaren aldeko aldarrikapena egitea. Ni euskal herritarra naiz eta sentitzen naiz, eta betidanik uste izan dut geuk erabaki behar dugula gure etorkizuna, zer izan nahi dugun eta no-rekin egon nahi dugun.

Zaila al da horrelako manifestu bat Madrilen sinatzea? Bai, etengabeko erosioa da. Salaketak, gaitzespenak, isiltasun adierazgarriak... Azkenean, horrek guztiorrek asko erositatu eta nekatzen zaitu. Ikusten

duzu ez dela emaitza handirik lortzen eta arazo dezente sortzen zaizkizula.

Zuen agiria baino hilabete lehenago Ermuako foroa aurkeztu zen. Zein da intelektualen eginkizuna Euskal Herriko egoera konpontzeko?

Ingalaterran gertatu den moduan, isil daitezela, edo, hitz egiten badute, gauzak leuntzeko eta irtenbideak proposatzeko izan dadila.

Irlandaz hitz egitean, Euskal Herriko eta Irlandako egoerak ezin direla konparatu esaten da. Zure ustez, handik ba al dugu zer ikasirik?

Bai. Garbi dago egoera ezberdinak direla; hala ere, mota horietako edozein esperientzia ona eta lagungarria da. Gainera, badira antzekotasunak, adibidez, aldarrikapen nazionalistak, eta antzekotasun horiek aprobetxatu egin behar ditugu.

Artikulu batean adierazi zenuen Euskal Herrian barkamena ren pedagogia oso bat zabaldu behar dela, baina, beti ere, barkamen hori bertute moral moduan ulerturik, ez erlijio hondakin gisa.

Azkenean, egoera konponduko bada, beste baldintza batzuek gaitzen, barkamen dosi handi bat beharko dugu. Barkamena, azken finean, norberaren soberania da, norbera gai baita momentu jakin batean besteekiko dituen exijentzia batzuei uko egiteko. Eta lan hori elkarte bakezaleei dagokie batez ere.

Aurrerakuntza handiak eta oso azkar gertatzen ari dira zientzian eta teknologian. Etika gai al da sortzen diren zalantza berriei erantzuteko?

Etika banaezina da gizakiarengandik, eta, une honetan, funtsezkoena da etikak gizaki ezberdin baten kontzeptua bultzatzea, hain zuzen ere, eboluzionatu egin duen gizaki batena; gizaki bat, zientziak eta teknologiak sortzen dizkion zalantza berriei aurre egiteko modukoa.

Hombres a la carta liburuan klonazioa eta genetika desmitifikatzen saiatu zarete. Asko hitz egiten ari da, gai hori ondo ezagutu gabe, ezta?

Bai. Urte gutxi barru arazo moral gehien jatorria genetika izango da. Izugarritzko abiadan goaz eta arazo horiei buruzko ideiak oraindik oso txikiak dira. Zientzia inoiz ez bezala ari da gure barruan sartzen, eta gure etorkizuna inoiz baino gehiago dago gure eskuetan. Eboluzioaren zentzua, gure existentzia... errotik alda ditzake genetikak. Beraz, horri dagokion gogoeta egokia garatzea falta da. Jendeari beldurra sartzen diote desinformazioaren bidez, eta egin behar dena da gai horiek ezagutu eta etikoki jantzi. Pentsatu behar dugu nola areagotu dezakegun gure zioritasuna teknologiak edo bioteknologia erabiliz, astakeriarik egin gabe.

Klonazioari buruz sekulako lelokeriak esaten ari dira. Guk, berez, ez dugu halako arazorik ikusten klonazioan. Beste gauza bat da ea momentu honetan klonazioa egitea zenbateraino den zuzurra, batez ere, oraingo ezagutzak kontuan izanik. Dena den, nire iritziz, ez da zertan jendea beldurtu.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria



Mundua on line

Euroa badator!

Hilabete gutxi barru, euroa errealitate bihurtuko da. Euroa Europak integrazio ekonomikoaren alde hautatu duen bidearen sinboloa da. 1999ko urtarrilaren leian, Europako 11 estatuk (Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Herbehereak, Irlanda, Italia, Luxenburgoko eta Portugal) moneta bakarra izango dute, urte asko iraun duen prozesu luzearen ondorioz. Oraingoan, Europar Batasuneko 4 herrialde kanpoan geratu dira: batzuk, hala nahi izan dutelako (Danimarka eta Erresuma Batua); eta, beste batzuk, beharrezko baldintzak bete ez dituztelako (Grezia eta Suedia). Euroak egonkortasun-kultura bultzatuko du Europan, izan ere, ezinbesteko tresna da egitura ekonomiko sendoa sustatzeko. Adituek diotenez, ekonomiaren eta monetaren batasunak Europako ekonomia eta merkatu bakarra bultzatzeaz gain, inbertsioa erraztu, enpresen arteko lehiakortasuna indartu, eta, orokorrean, kontsumitzaileen onerako izango dira. Beste batzuen ustez, aldiz, estatuen subiranotasunaren galera ekarriko du moneta bakarrak, bueltarik gabeko apostu arriskutsutzat jotzen dutelarik pauso hau.

Informazio zabalagoa helbide hauetan aurki dezakezue:

<http://euro.eu.int>
<http://europa.eu.int>

Luis Elizondo
 luis-elizondo@ivap.es

Euskonews & Media aldizkari elektronikoa

Dagoeneko eskuragai duzue Eusko Ikaskuntzak argitaratu duen aldizkari berri hau. Astero pantailaratuko da, eta, edukiei dagoeneko, zientzia eta kulturaren esparruko gaiak landuko ditu. *Irakurleen txokoa* izeneko atala ere badu, nahi duenak bere irizkiak edo artikuluak bidaltzeko. Aldizkariaren helburuetako bat euskal kulturaren eta zientziaren berri mundu osora zabaltzea denez, artikuluak edozein hizkuntzatan idatzi ahal izango dira, baina, beti ere, euskarari emango zaio lehentasuna. Bestalde, jakin ezazue hilerro monografiko bat ere argitaratuko dutela, eta aldizkaria eskuratzeko bi bide dituzuela: Eusko ikaskuntzaren web orrira jotzea, edota zuzenean ondorengo helbide elektronikoa: **Euskonews.com**.

Euskaltzaindiaren lan berriak: onomastika, eta arauak CD-ROMen

Euskaltzaindiak argitaratu berri du lehendabiziko aldiz 10.000 euskal abizen jasotzen dituen liburua. Lan horrek izugarri erraztuko ditu abizenak euskaraz jartzeko egin beharreko izapideak. Izan ere, orain arte Euskaltzaindiaren ziurtagiria beharrezkoa zen abizenen grafia aldatzeko, baina, hemendik aurrera, berriz, EAEko bake epaitegi eta errolda zibil guztiek izango dute liburua, eta, beraz, deiturak euskaratzeko nahikoa izango da lehen instantziako edo bake epaitegira jotzea. Ondoren, espedienteari hasiera emango zaio, eta Erregistro Zuzendaritza Nagusira bidaliko da; bertan, dena delako aldaketa onartu ondoren, hasierako epaitegira itzuliko da, aldaketa hori norberaren jaiotze-agirian jasotzeko.

Nolanahi ere, hori ez da Euskaltzaindiak kaleratu duen lan bakarra. Hortxe daukagu, ahalegin horren lekuko, Euskaltzaindiak 1994tik 1997ko uztaile arte onartutako arauak biltzen dituen CD-ROMa, hau da, orain arteko karpeta jasotako guztia. Ezagun denez, laster bigarren karpeta bat ere izango da, eta Euskaltzaindiak bi karpeta horiek CD-ROM batean bilduko ditu. CD-ROMa Mc Os eta Windows inguruneetan erabil daiteke, eta interaktiboa izango da.

Informatikako programa berriak euskaraz

Eusko Jaurlearitzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioek hitzarmen bat sinatu dute Microsoft enpresarekin, zenbait programa euskaratzeko. Orain arte *Windows 95* eta *Word 6.0* izan ditugu euskaraz, eta hitzarmenari esker laster izango dira *Windows 98*, *Explorer 4.0*, *Excel* kalkulatu orria eta *Word Outlook* agenda.

Lingua + CD-ROMa kalean

Europako hainbat komunitateren elkarlanaren ondoren eta Europako Batzordearen laguntzari esker, kalean da *Lingua +* izeneko CD-ROMa. Bertan, zenbait hizkuntza gutxituri buruzko informazioa aurki dezakezue, besteak beste, katalana, galiziera, galesa, alsaziera eta euskara. Informazio hori lau ataletan banatzen da: hizkuntzaren historia, egoera juridikoa, komunitate bakoitzaren hizkuntza-politika, eta egoera soziolinguistikoa. Hizkuntza bakoitzaren ahots erregistroa ere jasotzen da, eta baita interesgarria izan daitekeen bestelako informazioa ere, esate baterako, hizkuntza horien inguruko bibliografia osagarria eta hizkuntzari eta kulturari loturiko erakundeen datu-basea.

Herritar ren sare telematikoak: zer dira? Nola erabiltzen dira?

1. Herritarren ekimena

Pasa den uztailan, Herritarren Sareei buruzko Europako Bigarren Biltzarra egin zen Bartzelonan (**ECN'98**, <http://www.bcnnet.upc.es/ecn98>). Lehenengo aldiz, Kanada, EEBB, Japonia, Australia, Katalunia, Italia, Errusia eta mundu osoko herritarren sare-mugimenduko ehun ordezkari baino gehiago aurrez aurre izan ginen gure asmo eta arazoen berri elkarri emateko.

Herritarren sareak, ingelesez “*community networking*” deritzanak, herritarrek Internet-en sortutako espazio publikoak dira eta beren helburuak hauexek dira: informazioa elkarri ematea, Internet-en sartzeko zailtasunak dituzten pertsona edo gizataldeei sarean sartzeko aukera ematea eta denbora taldeka ondo pasatzea.

Herritarren sareak, gizarte zibilaren eta herritarren elkarteen adierazpideak diren aldetik, gizarte-aniztasunaren isla dira: unibertsitario edo ikasle-taldeak, enpresa txikiak, udal bulegoak, irabazi asmorik gabeko gizarte-txeak,... Horixe da, hain zuzen, sare horien ezaugarri nagusia.

Administrazioak zuzenean sortzen ez duen herri zerbitzugintza-mota hori Interneten inguruan erazten ari den kulturaren ezaugarrietako bat da. Sistema irekia denez, norberak nahi duen informazioa sartu dezake. Hori dela eta, herritarrak beren taldeei buruzko informazioa sartzan hasi dira, lehen unibertsitarioek edo enpresek egiten zutenari jarraiki.

2. BBSetatik sare libreetara

Steve Cisler, aitzindarietako bat izan da arlo honetan eta herritarren sareei buruzko lehenengo biltzarrak antolatu zituen Estatu Batuetan (“*Ties that bind*”). Cisleren ustetan, aurreneko sarea 70. hamarkadan sortu zen kontrakultura pil-pilean zegoen garaian. *Community Memory* denbora konpartitzeko sistema bat zen, terminal gutxi batzuk Berkeley (Kalifornia) eskualdean zehar banatuta zituena. 80. hamarkadaren hasieran, *Point Four*

-en laguntzaz *The WELL* sistema sortu zen Sausalito-n, gai komunitario eta alternatiboek buruz aritzeko.


Herritarren sareen arrazoi nagusia herritar-taldeen arteko informazioa bideratzea da, hau da, “*many to many*” (askok askori). Horrela, mass median nagusi den paradigmatari “*few to many*” (gutxi askori) aurre egiten zaio. Lehenengo mintzaldi-sistema informatikoaren sortzailea Murray Turoff izan zen. 1970. urtean *EMISARI* diseinatu zuen Estatu Batuetako Presidentearen Bulego Exekutiboko *Office of Emergency Preparedness*-erako. Sistema hori berritzailea zen guztiz ere. Izatez, lehenengo aldiz, bi helburu hauek lortu nahi ziren ordenagailuaren bidez: giza komunikazioa egituratzea informazioa elkarri emateari begira, eta guztion ahalegina bateratzea arazo jakin bat konpontzeko (1993:

49). Halaber, 70. hamarkadan Michiganeko Unibertsitateak *CONFER* sistema informatikoa diseinatu zuen. Sistema horrek arazo publikoekiko interesa piztu nahi zuen herritarren artean.

Japonian, 1972an, *Japan Compute Usage Development Institute* izeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak, Joneji Masudaren zuzendaritzapean, informazio-gizarterako lehenengo plan nazionala aurkeztu zion gobernuari, *JACUDI* Plana, alegia. Plan horren babespean abiatutako saio aitzindariaren artean hainbat hirita-ko kableaketa aipatu daiteke, esaterako Tama-n eta Higashi-Ikoma-n burututakoak. Azken horretan, *HI-OVIS* proiektuak toki-ko zuntz optikozko sare

bat ezarri zuen. Horren bidez Higashi-Ikomako herritarrek bideo-zerbitzu interaktiboak eskuratu zituzten herriko kontuetan parte hartzeko.

Baina sare libreen kontzeptua ez zen jai 1986. urtera arte. Urte horretan, Tom Grunder-ek, Clevelandeko *Case Reserve University*-ko Medikuntza Eskolako irakasleak, hasiera eman zion bere *Cleveland Free-Net*-ari (telnet://freenet-in-a.cwru.edu/) horretarako AT&T-ren laguntza jaso zuela. Aurreko sistemetan ez bezala, *Cleveland Free-Net*-a hainbat Unix makinek osatzen zuten eta bidezkoa zen ordenagailuekin konektatzea VT100 ter-



minalak emulatuz bai Interneten bidez bai telefono-sarearen bidez modem-bateriak erabiliz. Azkenean, *National Telecomputing Network* (<http://www.npln.org>) *Free-Net* marka erregistratu, bere softwarea estandarizatu eta horren eredia zabaldu zuen 90. hamarkadan Estatu Batuetan eta Kanadan.

Hona hemen helbide interesgarri batzuk

Nola sortu helbide bat Interneten herritar bakoitzarentzat
<http://www.ac.upc.es/homes/artur/ica.html>

Localnet, tokiko zerbitzuak bateratzeko arkitektura
<http://www.canet.upc.es/localnet.html>

"Posta Elektronikoa Denontzat" Kanpaina
<http://www.iaginteractive.com/emfa>

Herritarren sareei buruzko web on bat
<http://www.si.umich.edu/Community/>

Esperientzia arrakastatsu bat
<http://www.bcnet.upc.es/ravalnet>

Clevelandeko sare librea egiten zen bitartean, Ken Phillips-ek, Kaliforniako Santa Mónica Udaleko funtzionarioak, *PEN* (*Public Electronic Network*) jarri zuen abian. Aurrekoan ez bezala, oraingoan, ekimena udaletik zetorren eta sarbidea ematen zitzairen herritarrei hiriko liburutegi publikoetan kokatutako terminaletatik.

Baina sare libreen gakoa ez datza besterik gabe software edo hardwarean. Tom Grunderen esanetan garrantzikoena kontzeptua da. Hau da, 1) sare libre guztiak doanekoak dira erabiltzailearentzat; 2) batez ere tokiko informazio-baliabideak garatzen dituzte (NPTNren elikagaiez osatzen dira estatu mailan); eta 3) informazioa ahalik eta pertsona gehienengana helaraztea dute helburu. Ezaugarri horiek dira, berez, sare libreen nondik norakoa zehazten dutenak, eta ez software edo hardwarea (Cisler:1995).

NPTNrekin batera beste zentro batzuk sortu ziren herritarren sareen mugimendu hori dinamizatzeko asmoz. Massachusetts-eko "Centre for Civic Networking" (<http://civic.net/ccn.html>) izeneko zentroa, Richard Civillek zuzenduta, "civic networks" izenekoak sortzeko laguntza ematen duen erakundea da. "Morino Institute" ere (<http://www.morino.org/>), PAN (*Public Access Networks*) garatzeko laguntzen duen erakunde pribatua da. Izan ere, 300 PANetik gorako basea dauka Estatu Batuetan eta Kanadan.

Sarerik handiena

Gaur egun, mundu osoan erabiltzaile gehien dituen herritarren sarea, antza denez, Ottawakoa da: *National Capital Freenet* (NCF) (<http://freenet.carleton.ca>). Sare horrek 60.000 kontu ditu indarrean 1,5 milioi biztanleko hiri batean.

1995eko otsailaren 7an, Kyla Huckerby-k, sare libre hori sortu zuenetako bat, UPCren barruan egon eta gero, horren jardueraren

berri eman zigun. Huckerbyren ustetan, "NCF, komunitatearen parte bat zen, plaza nagusi birtuala, sarbide libre eta Interneteko oinarrizko hainbat zerbitzu eskaintzen dituen, esaterako, posta elektronikoa, *news*-ak eta *gopher*-a" (1995). Unibertsitateak jarri zuen azpiegitura eta biblioteka publikoek eta udalak ere laguntza eman zuten. Edukiak erakunde komunitarioek, udal gobernua eta gobernuz kanpoko erakundeek sortu zituzten. Indarrean jarri eta bi urteetara, 1995. urte hasieran, sare horrek 30.000 erabiltzaile zituen, 300 informazio-hornitzaile eta 200 boluntario. Ekipamendu teknikoak honako hau zen: 120 modem (2.400 bit/seg.), 60 modem (14.400 bit/seg.), 4 SUN Spark eta herritar guztiei sarbide emateko 20 terminal. Baziren lau langile sistemaren mantenimenduaz eta administrazio-kontuez arduratzeko. Horrez gain, bazeukaten sare-kudeatzaile bat eta "fundraising" edo harreman publikoetarako pertsona bat, sare libreen finantzazioa bilatzeko.

Urte horretan, sarearen mantenimenduaren kostuek 330.000 dolar jo zuten, horrela banatuta: 250.000 administrazio-gastuetarako eta 80.000 ekipamendu eta telekomunikazio-gastuetarako. Aurrekontu horri aurre egiteko honako dirusarrera hauek zeuden: 190.000 dolar erabiltzaileen ekarpenetatik, 80.000 dolar telefono-linea eta modemak esponsorizatuz, 45.000 dolar gobernuaren laguntzatik eta 15.000 dolar bestelako ekarpenetatik.

Azken buruan zera gomendatzen zigun: egin beharreko sareak nolakoa izan behar duen oso argi izan, komunitate guztiak parte hartzeko aukerak ahalik eta gehien erraztu eta azpiegitura irekia sortu eta mantendu.

Kataluniako herritarren aurreneko sareak *TINET* zuen izena eta 1995eko urriaren 16an abiatu zen (<http://www.fut.es>). Horri buruzko informaziorik nahi izanez gero Manel Sanromaren artikulua eskura dezakezue *Netconexión* aldizkariaren 4. zk.an. Hilabete batzuk geroago *VallesNet* herritar-elkartea sortu zen Ekialdeko *Vallès*-eko sarea eratzeke asmotan (<http://http://aleph.ac.upc.es/org/vallesnet/>). 1997 eta 1998. urtean antzeko ekimenak piztu dira Bartzelonako hainbat auzotan, esate baterako, *Nou Barrus Net*, *Ravalnet*, eta arestian, *Xarxa 3*, Sants Montjuïc-eko sarea.

Herritarren sareen zenbait ezaugarri

- ✓ Erabiltzaileek eurek sortzen dituzte edukiak.
- ✓ Erraztasunak ematen zaizkie herritarrei beren web orria izan dezaten.
- ✓ Partaideen arteko komunikazioa norantza biko da.
- ✓ Erabilerraza da, prestakuntzarako ekimenak bideratzen ditu eta sarbide librea eskaintzen die guztiei.
- ✓ Sarbidea ekonomikoa da.
- ✓ Partaideak ez dira anonimoak, elkar ezagutzen dute eta.

1997ko udan, herritarren sareei buruzko Europako lehen biltzarrak antolatu zen Milanen (<http://www.bcnnet.upc.es/ecn97>). Bertan *European Alliance for Community Networking* sortzea erabaki zen (<http://www.ac.upc.es/homes/artur/eacn.html>). Hortik aurrera, European ere herritarren sareen inguruko mugimendua piztu zen, Kanadan (*Telecommunities Canada*) edo Estatu Batuetan aurretik gertatutakoaren antzera.

Herritarren sareak eta *Telecities* European
Kanadan edo EEBBn ez bezala, European gizarte zibilaren eragina ahulagoa da eta Administrazioa nagusitzen da arlo horretan. Horrek bere baitan ekarri du hainbat kasutan tokiko telematika udalen ekimenetatik sortu izana, eta beste batzuetan, autonomi administrazioetatik, Valentziako *Infoville*-ren kasuan bezala.

1993an, Europako Batzordearen laguntzaz, *Telecities* partzuergoa sortu zen, Europako hainbat hiri garrantzitsu elkartuta (<http://www.edc.eu.int>), besteak beste, Bartzelonako udala. Hainbat urtetan ez da harremanik izan talde horren eta herritarren sare-mugimenduaren artean. *Telecities* delakoa Europako Batzordearen aitopena lortu nahian dabil, baina, tamalez, Batzordearen kezka nagusia ez da herritarrentzako zerbitzu telematikoa sortzea, lehiakortasun ekonomikoa baizik. Horiek horrela, *Telecities*-ak hainbat proiektu burutu ditu IV. Oinarri Programaren (1994-98) fondoei esker, udalak horrelako zerbitzuak sortzeko gauza direla Batzordeari erakusteko, eta, izan ere, lortu ere lortu dute hainbat kasutan. Horren erakusgarria daukagu Bartzelonako Udalaren web-a (<http://www.bcn.es>), 1997an *Bangemann Challenge*-n aipamena jaso duena. Halere, *Telecities* eta herritarren sareen arteko lankidetzaren urriegia da oraindik. Izan ere, ez da gauza bera tokiko administrazioa goitik behera ikustea edo behetik gora, eta horregatik zaila izaten da bi ekimenak bateratzea.

Nolanahi ere, ezinbestekoa dute elkarri ulertzea. Enpresak, adibidez, gero eta gehiago konturatzen ari dira tokiko egiturak erabiliz salmentek gora egiten dutela. Familia baten aurrekontuaren %80a 10 km-ko erradioan gastatzen da. Estatu Batuetan zenbait konpainia pribatu (Microsoft,...) tokiko informazio-zerbitzuak jartzen ari dira (*Sidewalk*) eta lehia bizian ari dira udal web-ekin. Udal web-ek, ondo osatuta badaude ere, ezin dute hiriak Interneten daukan informazio guztia jaso. Era berean, herritarren sareek ezin dute *on line* dauden herritar guztiak bereganatu. Konektatuta dauden herritar gehienek hornitzaile pribatuak erabiltzen dituzte sare libreak erabili beharrean. Beraz, herritarren sareek konponbideak bilatu behar dituzte herritar guztioi irekita egon behar duen hiri digitala eraikitzeko.

Hiri digitala eraikitzea: lankidetzaren erroka

Horixe izan da Bartzelonan "Hiri digitalen ereduak" izenpean herritarren sareei buruz egindako bigarren biltzarrean azaldutako erroka. Gai hori aukeratu da, hain zuzen, tokiko administrazio, enpresa eta herritarren arteko lankidetzaren esparrua zehazteko.

Dirudenez, geroko lankidetzaren, Interneteko lastertasun-sareetan oinarritutako hiri digital irekien esparruan da garatzekoa. Beste-

tik, sare horiek herritar guztiak eskuratzeko modukoak izan beharko dute.

Dagoeneko, hasi da eztabaidatzen Estatu Batuetan Interneteko Zerbitzu Unibertsalari buruz. Duela gutxi, *Marckel Foundation*-ek Guztientzako Posta Elektronikoa alde (*EMFA, E-mail for All*)

Herritarren sareen zerbitzu batzuk

- ✓ Auzo edo udalerriri buruzko argibideak, behar bezala eguneratuta.
- ✓ Erakusketa telematikoa birtualak.
- ✓ Gai orokorre (auzoaren egoera) edo zehatzei (gertaera jakin bat) buruzko forumak.
- ✓ Erabiltzaileen arteko posta elektronikoa.
- ✓ Aldizkari digitalak.

antolatutako kanpainak arrakasta handia izan du. Bestalde, abian da jadanik banda zabalean oinarritutako teknologi belaunaldi berri bat.

Tokiko administrazioak irekitzeko prozesua, aldiz, nahiko atzeratuta dabil. Hortaz, beharrezkoa da politikari eta funtzionarioak egoki trebatzea Interneteko erroken aurre egiteko. Izan ere, monopolioak eta erakunde zentralizatu eta itxiak arrisku bizian daude egokitu eta aldatzeari ekiten ez badiote. Arestian Katalunian *Local Ret* izeneko partzuergoa sortu da (<http://www.local-ret.es>). Sare hori 400 udalerriri osatzen dute eta helburu dauka lurralde osoan kablearen garapena operatzaileekin negoziatzea. Dena den, hori ez da nahikoa.

Tokiko administrazioari ulertarazi behar zaio sistema demokratikoa berritzeko beharrezkoa dela gizarte-ekintzaileak, tokiko gizarte zibila, eta herritarren ekimenak kontutan hartzea, horien aurka lehiatu gabe, horiek baitira benetan egungo sistema demokratikoa berrikuntzaren eragileak. Herritarren sareak boluntariadaro eta gizarte-ekintza demokratikoa adierazpide bizienetako bat dira eta, aldi berean, aro digitaleko komunitateen heldutasunaren erakusgarri. Hirien Europak etekin handia atera dezake ikuspegi horretatik.

Arazo asko azterkizun daude. European eta Estatu Batuetan hainbat saio egiten ari dira herritarren sareak sakonki aztertzeko (<http://www.scn.org/ip/commnet/cscw-pdc-workshop.html>). Nolanahi ere, garbi dago sare horiek onuragarriak direla gizarte digital partehartzaile eta irekia garatzeko.


Artur Serra

Internet-eko Aplikazio Zentroa
Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa
<http://www.ac.upc.es/homes/artur>

Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak

Era askotan jaso ditugu euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak, ez baitira era bakar batean heldu. Horregatik, eta batasunaren izenean, ondoren herrialdez herrialde azalduko ditugun aldaerak hobetsi zituen Euskaltzaindiak 1996ko apirilaren 26ko erabakian.

OHARRA: hitz batzuek aurrean daukaten izartxoak aldaera hori ez dela gomendatzen esan nahi du.



Araba

Araba da herrialdearen izena euskaraz, jatorriz latinezko *planus*-ekin lotua, eta *Alaba*-tik eratorria. Leku askotan erabiltzen den Araba-herria ez da gaitzetzekoa.

Bertako herritarra **arabar** da, eta ez **arabatar*.

Euskalki zaharra **Arabako euskara** da; ez dezagun erabil nahasgarri gerta daitekeen **arabera* aldaera.

Bizkaia

Bizkaia da herrialdearen izena, dirudienez, garai batean *bizkar* hitzaren kidekoa. Gogorazi behar dugu amaierako *-a* hori artikulua dela: *Bizkai osoan*, *Bizkaiko*, *Bizkaira*, *Bizkaitik*... erabili behar dira, eta ez **Bizkaia osoan*, **Bizkaiako*, **Bizkaiara*, **Bizkaitik*...

Herritarra izendatzeko **bizkaitar** erabiliko dugu.

Euskalkia **bizkaiera** da; nongoa den bereizi behar bada *Ekialdeko*, *Mendebaldeko*, e.a. erantsi.

Gipuzkoa

Lurraldea izendatzeko historian aldaera zaharrena *Ipuzkoa* izan arren, **Gipuzkoa** da euskara jasoan gomendatzen den era, -a itsatsia bukaeran: *Gipuzkoan*, *Gipuzkoako*, *Gipuzkoara*, *Gipuzkoatik*... Bestelako aldaerak (**Gipuzko*, **Gipuzku*...) baztertzekoak dira.

Herritarra **gipuzkoar** edo **giputz** da; hala ere, *gipuzkoar* orokorragoa da.

Euskalkia **gipuzkera** da, eta bereizteko *Goierriko*, *Beterriko*... erabili.

Lapurdi

Herrialdearen izena **Lapurdi** da; **Laburdi* aldaera, aldiz, oso bakana da euskal testuetan.

Herritarra **lapurtar** da, eta euskalkia **lapurtera**.

Nafarroa

Herrialdearen izena **Nafarroa** da, -a itsatsia duela bukaeran: *Nafarroan*, *Nafarroako*, *Nafarroara*, *Nafarroatik*... Hortaz, **Naparroa*, **Nabarra* eta antzekoak ez erabili.

Bereiztekotan, **Nafarroa Garaia** esan daiteke: *Nafarroa Garaian*, *Nafarroa Garaiko*, *Nafarroa Garaia*, *Nafarroa Garaitik* (eta ez **Garaiaiko*, **Garaiaira*, **Garaiaitik*...).

Herritarra **nafar** da, **napar*, **napartar* edo **nafartar* baino egokiagoa. Bereiztekotan, *Nafarroa Garaiko* edo *Hegoaldeko nafar* erabil daitezke.

Euskalkia **nafarrera** da, eta bereiztekotan, (*Hegoaldeko* zein *Iparraldeko*) *goi nafarrera* edo *goi-nafarrera* (marra aukeran).

Nafarroa Beherea

Baxenabarre ere erabil daitekeen arren, **Nafarroa Beherea** da Euskaltzaindiak gomendatzen duena. Bukaerako -a artikulua da: *Nafarroa Beherean*, *Nafarroa Behereko*, *Nafarroa Beherera*, *Nafarroa Beheretik*...

Herritarra **nafar** da, baina bereiztekotan *baxenabartar*, *Iparraldeko nafar* nahiz *Nafarroa Behereko* erabil daitezke.

Euskalkia **nafarrera** edo **behe(-)nafarrera** da (marra aukeran); bereizteko, *Ekialdeko* zein *Mendebaldeko* erantsi.

Zuberoa

Zuberoa da forma gomendagarriena, maila dialektalean *Xibe(r)ú(a)*, *Xibero(a)* eta antzekoak ere zilegi diren arren. Bukaerako -a hori berezkoa da: *Zuberoan*, *Zuberoako*, *Zuberoara*, *Zuberoatik*.

Herritarra **zuberotar** da, ez **zuberoar*. *Xiberotar* eta antzekoak ere erabil daitezke, baina maila dialektalean soilik.

Euskalkiaren izena **zuberera** da euskara jasoan, nahiz eta maila dialektalean *xiberera* eta antzekoak onartzen diren.

Aitor Gorostiza
HAEEko teknikaria

Irudi aldaketa

Gure herriko alkate hautatu berriak ez zekien euskaraz hitz egiten. Egia esan, ez zuen euskaraz tutik ulertzen. Tira, egunon, eskerrikasko eta horrelako hitz solteak bakarrik zekizkien. “Karisma” zuelako jarri zuten zerrendaburu eta herritarrek botua alderdiari ematen diotenez betikoek irabazi zuten. Alkategaia kastellano peto-pettoa zen arren.

Bi hilabetera, alkatearen izen onak eta ustezko karismak behera egin zuten, ez dakit zein azpijokotan harrapatu zutela-eta, hala zioten behintzat zurrumurruek. Hortaz, alderdikideek alkatearen irudia hobetzeko zerbait egin behar zutela erabaki eta, moderno eta inportanteek egiten duten eran, irudi aholkulari bat kontratatu zuten. Profesionala berau, komunikazio enpresa berri batetik zetorrena eta gai hauetan nahikoa esperientzia zeukana.

Irudi aldaketa erabatekoa izan zen. Lehenik eta behin, anteojoen ordeztasunak jartzeko aholkua eman zion, horrela itxura gazteagoa izango zuela eta, errespeturik galdu gabe, konfidantza irabaziko zuela herriko elkarteetako kideen artean, gertuko alkate bezala hartuko baitzuten, euren artean bat gehiago. Gustatu zitzaion ideia alkateari eta optikara joanda lentila bigunak erabiltzen ikasi zuen. Hurrena, arropa izan zen. Bere ohiko estiloa bertan behera laga gabe, ukitu berezi eta informalagoa jarri zion aholkulariak. Egunero trajez jantzita joatea baino hobe zuela noizean behin bakeroak eta alkandora jaztea. Udaletzeko funtzionariak bereganatzeko pentsatua zeukan plana. Noski, enpresagizon eta beste politikariekien bilerak izaten zituenean, beti trajeaz joatea komeni zen.

Baina benetako eraldaketa ilearekin izan zuen. Alkateak ordura arte albo batera orrazten zuen bere ile liso eta zozoa. Aurrerantzean, ilea motz-motza eta aurrera botata agertuko zen beti. Alkatea pozik zegoen. Bere itxura berria gustatzen zitzaion, emaztearekin aspaldian galduta zuen pasioa berreskuratzen zuen eta bazirudien jendearen artean hasieran zuen begirunea berreskuratzen ari zela. Hori bai, aholkularia eten-gabe izaten zuen bere ondoan, beharrezkoa egin zitzaion, eta itxurari buruzko erabakiak ezezik, beste edozein gairi buruzkoak ere komentatzen zituen berarekin. Haren hitza sakratua zen, bazekien ez ziola hutsik egingo.

Pentsa, 365 eguneko agintaldian euskaraz laupabost esaldi segidan esateko gai zen alkate jauna!

Alkateak paper mordoxka izaten zuen egunero mahai gainean. Horietako asko sinatu besterik ez zituen egin behar. Beste batzuk aztertu beharreko txostenak ziren. Edo zuzenean atzera bota behar zituen proiektu eta proposamenak. Gehientsuenak errepikatuta egiten ziren eta bere funtzioa nahiko automatikoa bihurtu zen. Betiko gauzak sinatu eta betikoak atzera bota. Baina, azken hilabeteetan aholkulariaren ezinbesteko hitza zeukan berea babestu eta zalantzak argitzeko. Lana aurreratze aldera, euskara

hutsez iristen ziren txostenak, alkateak berak irakurri gabe, aholkulariari pasatzen zizkion zuzenean eta hark esaten zion zer egin kasu bakoitzean. Izan ere, alde horretatik izugarritzko mesedea igerri zuen, itzultzailearen zain egon gabe, zuzenean bideratzen baitzituen gaiak.

Urtebete bete zuen alkateak Udaletxean. Tira-bira batzuekin, desadostasun ugarirekin, kontrako iritziekin baina baita babes sozial handiarekin ere. Eta hori guztia aholkulariari esker, nola ez. Pentsa, 365 eguneko agintaldian euskaraz laupabost esaldi segidan esateko gai zen alkate jauna! Nahikoa meritu izan zuen aholkulariak hori lortzeko ahaleginean!

Kontua da, goiz batez alderdikide bat alkatearen bulegora sutan sartu zela. Alderdian gehien agintzen zuen kidea, hain zuzen, alkatearen gainetik zegoena. Azken batean, alkatea bera txontxongilo bat baino ez baitzen. Kide boteretsu honek azalpenak eskatu zizkion. Berehala nahi zituela arrazoiak. Ez zuela ulertzen nola hartu zuen hain erabaki garrantzitsua inoren iritzia eskatu gabe. Ez zuela aitzakiarik entzun nahi, pisuzko argudioren bat baizik. Edozein modutan, ordaindu beharko zuela egindako kalte guztia. Alkateak ez zekien bere alderdikideak zer esan nahi zion. Ez zuen ezertxo ulertzen. Haren ahotik suge eta biraoak etengabe ateratzen ziren eta bulegoa pozoiz betetzen ari zen baina berak, alkateak, ez zekien zertaz ari zen alderdikidea.

Beranduxeago jakin zuen azken hilabeteetan sinatutako hainbat eta hainbat paperetan zegoela haserrearen giltza. Besteak beste, Gaztetxearen alde, Euskara dinamizatzaile bat kontratatzearen alde, euskara hutsean argitaratuko zen astekari baten alde, funtzionari guztiak euskara profilen plangintzan sartzearen alde, Euskara Taldeari dirulaguntza igotzearen alde, AEK euskaltegia babestu eta bultzatzearen alde eta abar eta abar sinatu izan zuelako. Egunkariak, herrietako kroniketan, sortu berria zen “Euskararen Aldeko Plataforma” ren kanpainaren berri eman zuten. Luze-zabalean aipatzen zituzten detaile guztiak. Gainera, testua indartzeko, plataformaren alde sinatu zuten herriko hainbat pertsonaia ezagun eta garrantzitsuren izen-abizenak zerrendatu zituzten. Horien artean herriko Alkate Jauna aurkitzen zen. Artikulua argazki batez osatua zegoen, prentsaurrekoa eman zutenak ikus zitezkeen bertan eta han, mahaiaren erdi-erdian aholkularia; karismadun alkateari irudi aldaketaren azken lezioa ederki irakatsi zion aholkulari infiltratua.

Jasone Osoro
Idazlea

Eur opako zalantzak, neure eginda

Itzulpen-lanean diharduenak, itzulgaiaren esanahia ulertze-ko orduan, sarri izaten du norbaiten laguntza-beharra, norbait horri galderak egiteko, dela idazlea bera –eskueran badago– (bera baita iturririk onena, teoriar behintzat), dela adituren bat, edo, bestela, hiztegi espezialdu edo bestelako libururen bat, zerbaiti heldu behar zaionean.

HAEK argitaratu berri dituen *Europako Erkidegoa eratze-ko Ituna* eta *Europako Batasunaren Ituna* itzultzen jarri nintzenez, jakinekua nuen, berez, ez nuela itun horien egilearen laguntzarik izango; etxeko adituena, bai –eskerrak, Xabier–; eta gehienetan, testuen konparazioak egingo zida-la argi.

Izan ere, gaztelerako testua oinarri hartu badut ere euskara-ra bihurtzeko, aldamenen izan ditut frantsesez, ingelesez eta italieraz argitaratutako testuak ere. Itunotan berariaz esaten den moduan, hizkuntza bakoitzean eta guztietan egindako testuak jatorrizkoak dira, ez dira itzulpen, bata ez da bestea baino lehenagokoa.

Hola, guztiz harrigarria iruditu zait zer eta nolako parekotasuna dagoen testuen artean elkarren ondoan jartzen direnean. Bai hitzetan, bai sintaxi-egituretan, eta bai ordenan ere, pare-parekoak dira pasarterik gehienak. Hala ere, eta hau da deigarri niretzat, badira aldeak zenbait kasutan, eta hortik etorri zaizkit askotan konponbideak, aukera lasaiagoak utzi dizkidatelako.

Komenta ditzagun, multzo batean, administrazioak eten gabe darabilen hizkeran latzak–edo egiten zaizkigun zenbait hitz, sintagma edo esaldi.

1 Har dezagun *Europako Batasunaren Ituna* (EBIko 29.2.3. art.).

“cuando proceda” (es);
 “en tant que de besoin” (fr);
 “ove necessario” (it);
 “where necessary” (en);

Puntu honetan nabarmendu nahi dudana gaia zera da: gaztelerara dela beste hizkuntzetatik urruntzen dena, bai esanahian –besteek “premia” aipatzen dute–, eta bai gramatikako kategorietan –aditza barik, izena eta adjetiboa hartu dute beste hirurek–. Euskarazkoan gaztelerakoaren gramatikako kategorietara atxiki banaiz ere –aditza erabiltzera jo dut, besteek elipsia egin duten tokian–, esanahian, aldiz, –ohikotik aldentuz, “bidezko”, edo bide gabeko formuletan ibili ordez–, besteetatik hartu dut, beste hirurena bat datorrelako, eta zehatz-argiagoko delako: *“premiazkoa denean”*.

2 Gaztelerazko hitz arrunt baten inguruan dator oraingo hausnar-aldia. *Europako Erkidegoa eratze-ko Ituneko* 75.4. artikuluan eta 76.1. artikuluan datorren hitz bera da: “cualquier”; baina bi adiera dauzka, eta kontrajarriak testuinguru-
 ruan.

“... previa consulta a cualquier Estado miembro interesado,” (EEIko 75.4. art.);

“... condiciones que impliquen en cualquier forma una ayuda o protección...” (EEIko 76.1. art.).

Lehenengoan aurkitu dut arazoa (*cualquier Estado*), ustez testuaren esanahia aldatu eta itxurarik gabe uzten duelako.

“Cualquiera: una persona indeterminada, alguno, sea el que fuere.” (RAEko hiztegia).

Hori irakurrita, badirudi (hori da nire interpretazioa behintzat), lehenengo esaldian, “gureta edo gure barik”, “*edozein bat*” aipatzen duela, ez estatu guztiak, frantsesak eta italierakoak ulertu duten moduan: “*tout État*” eta “*ogni Stato*”. Eskerrak María Molinerri, bere esanera, “*todos*” ere “cualquiera”ren baliokidea delako. Horrela, bai!

Bigarren adibidean, aldiz, nik ulertzen dudanez, zehazgabetasunetik hurbilago dago, beste ezer baino: “*sea el que fuere*”. Konparazioa eginenez, frantsesak lehenengo hitzari eutsi dio: “*tout*”. Italierak, ez; “*qualsiasi*” dio: gazteleraren parean jartzen da, hitzaren formaz ere. Euskaraz ere bereizi egin ditut formak, bakoitzari egokien datorkion adiera argitzeko hitzak jarritz, emandako azalpenen argira:

“... *interesatuta dauden estatu guztiei...*” (eu);

“... *edozelakoa dela ere...*” (eu).

3 EBIko 34.2.d) artikulua itzultzerakoan gehiago begiratu diet italiera, frantses eta ingelesari gaztelerari baino. Zelan eman “*pertinentes*”?

*Manual de estilo del lenguaje administrativo*ko hiztegian honela dio: “1) Adecuado y oportuno a la ocasión o al caso; 2) A propósito, relativo a, correspondiente a, referente a; 3) Concerniente al pleito o al proceso”.

Ustez, itzultzaile askoren arazoa da administrazio-ko hizkerako hitz sarri hori: “*bidezko, egoki, dagokion...*”. Zalantzaz beterik ibiltzen gara irtenbiderik egokiena zein den jakin gabe, gaur batera, eta bihar bestera salto eginez.

Hartara, hasieran esandakoaren ildotik, beste hizkuntzetan erreparatuz, “*aplikatu*” aditzaren erroko mailegua aurkitu dut (“*aplicable*”, “*aplicables*”, “*aplicable*”), eta hortik abiatu naiz: “*aplikagarri*”, beraz. Gainera, beste artikulua batzuetan, gaztelerak berak ere, beste hizkuntzen pare, “*aplicar*” hartzen du, EBIko 7. artikuluan ikus daitekeen moduan.

4 Gaztelerazko “eventualmente” hitzaren inguruan zalantzak sortu zaizkidanez, azterketa egiten jarri naiz. EEIko 83.2.c) artikuluan “*precisar, eventualmente, respecto de los distintos sectores económicos, el ámbito de aplicación de los artículos 81 y 82*” esaten da. Aditzaioak berak ez du

aparteko arazorik sortzen itzulpenarako, dagokion lekuan eta adierarekin erabiltzen bada. Baina, badirudi, hala behintzat niri, oker dagoela.

Lehenengo pausoa konparazioa egitea izan da beste hizkuntzetan zer dioten ikusteko. Italiarrek, forma bereko hitza: “eventualmente”. Frantsesak, ez: “le cas échéant”. Ingelesak: “if need be”. Hara, bada, zelako aldeak batetik bestera!

Ondoren, RAEko hiztegiara jo dut. Hona adiera bakarra: “incierto o casualmente”. Aipatutako 83.2.c) artikuluan datoren hitzaren lekuan RAEko adiera jarriko bagenu, testua honela geldituko litzateke: “precisar, *incierto o casualmente (de forma incierta, de forma casual, inciertamente)*, respecto de los distintos sectores económicos, el ámbito de aplicación de los artículos 81 y 82”. Ez dut uste inork horrela idatziko lukeenik. Euskaraz honela gelditu da: “*premiarik balego*”.

5 Aurreko pasartearen erabilitako testuan bada beste hitz bat, gazteleraz ez, baina euskaraz bikote klasiko bihurtu dena: “distintos=desberdinak”. Lankide batetik esaten duen moduan, nahiago luke “desbardin” guztiak “desagertuko” bagenitu, berez “galduko” ez direlako.



Jo dezagun María Molinerren hiztegiara: “**Distinto**: 2.- “*Diferente. Otro*”. *No el mismo: ‘Nos estamos refiriendo a dos cosas distintas’. En plural, “diversos, varios”; más de uno: ‘Hay distintas maneras de matar pulgas’.*”

Ea, bada, adiera horretako “desbardin” guztiak “akabatzen” ditugun gure erabileratik, “desagertzeko” ahaleginetan gu geu bidean hil ordurako. Izan ere, irrati-telebisten esanera, “bileran parte hartu duten alderdi politiko desberdinak”... diferenteak dira noski, eta eskerrak!, berdinak izatekotan bat ere nahikoa litzateke eta.

6 Gaztelerazko “su” posesibo-obsesiboren kasu bat hemen. Osorik idatziko dut EEIko 105.4. artikuluko bigarren pasartearen: “El BCE podrá presentar dictámenes a las instituciones u organismos comunitarios o a las autoridades nacionales pertinentes acerca de materias que pertenezcan al ámbito de sus competencias”.

Irakurri, eta galdu, biak batera. Baina, eroapenez edo eroan ezinez, konparazioetan hasi naiz. Italiarrek, ezer ez; arazoa, lehenengoan (testuak aldaketa batzuk eduki arren). Ingelesetik ere, aldaketak aldaketa, argirik ez. Frantsesak, bai, ordea. Hona hemen berak dioena: “La BCE peut, dans les domaines relevant de sa compétence, soumettre des avis aux institutions ou organes communautaires appropriés ou aux autorités nationales.”

Ordenak zelako gauzak egiten dituen! Erreferentzia esaldiaren amaieran egon, edo azalpen moduan erreferentzia-gaiaren ondoan egon, aldea osoa da eta argia. Azkenean dagoen erreferenteak, hala beharrez, bera baino lehenago agertu diren

osagai guztiak izan ahal ditu erreferentzia-puntu, eta marka argiren bat eduki ezik, ez dago jakiterik norekin eta zelatan lotu. Beraz, frantseseko testuari esker ulertu ahal izan dut nori dagokion “sus” merke hori.

“EBZk, bere eskumenen eremuan sartzen diren gaietan, irizpenak aurkez diezazkieke Erkidegoko instituzio edo erakundeetara, edo estatu bakoitzean dagokien agintariei.”

7 Gaztelerako “su” posesiboak arazoak sortzen baditu, ez da gutxiagorik beste honekin ere: “mismos”. Hona, hori dela eta, jira eta bira hartu nauen artikulua: “Los reglamentos, las directivas y las decisiones adoptados con arreglo al procedimiento previsto en el artículo 251 serán firmados por el presidente del Parlamento Europeo y por el presidente del Consejo y se publicarán en el *Diario oficial de las Comunidades Europeas*. Entrarán en vigor en la fecha que ellos mismos fijan o, a falta de ella, a los veinte días de su publicación.” (EEI, 254.1. art.).

Egia esan, testua aurrean nuela, lehenengo, pertsonak topatzen hasi nintzen “ellos mismos” irakurri nuenean. Eta samurra izan zen lana: arauak izenpetuko zituzten lehendakari biak hartu nituen epea jartzeko arduradun izateko ere. Zalantza izpirik ere ez.

Baina, hurrengo puntura pasa aurretik, galdera-ikur bat jarri nion esaldiari, “mismos”, berez eta besterik gabe, susmagarria dudalako. Eta orduan, beste hizkuntzetara. Lasai zihon italiarra-frantsesaren irakurketa, gaztelerazko sujetua haietan ere sujetu zelako. Baina ingelesekoan den-dena aldatu zen preposizio baten erruz edo: “in them”, inesiboa. Norbaitek barik, nonbaiten finkatuko zen epea. Lehendakariak alde batera utzi, eta leku batera egin behar nuen salto, ustez: non.

Baina ezer aldatu baino lehenago, nire tokitik jaiki, eta gai horretan aditua den pertsona batengana jo nuen azalpen bila. Ustea egia zen: arau-testuetan finkatu behar zen eguna. A zelako komerkiak ezkatuzten zituen “mismos” ditxosozko horrek, lehendakari biak, alperriko lanik gabe, bakean utzi, eta arau-testuak jarri behar bainituen eguna finkatzeko lanetan.

Hona EEIko 254.1. artikuluko azken partean datorren esaldiazatua beste hizkuntzetan jasotako moduan:

“Essi entrano in vigore alla data da essi stabilita...” (it);

“Ils entrent en vigueur à la date qu’ils fixent...” (fr);


“They shall enter into force on the date specified in them...” (in);

“Bertan finkatutako egunean jarriko dira indarrean...”

Hona ekarri ditudan adibide xume hauek itzulpen-lanean izaten ditugun arazoen islada baino ez dira. Testua, edozelakoa dela ere, susmagarritzat hartu behar dugu, eta ikusten denaz gain, ezkatututa dagoena azalera ahalegindu. Dotrina zaharrean irakatsi ziguten moduan, etsaia beti dago zelatan, itultzaile gaxoa deskuidoan harrapatzeko.

Antton Burgoa
IZOko interpretari nagusia

Unibertsitatea edo lanbide heziketa?



Jose Guillermo Zubia
Confebask-eko idazkari nagusia

Prestakuntza gero eta garrantzitsua da enpresen lehiakortasunean eta langileen gizarte eta lan sustapenean. Hala ere, prestakuntzaren eginkizuna zuzen beteko bada, beharrezkoa izango da formazioak betetzen duen lekua errebisatzea eta baita berriro bideratzea ere prestakuntza horrek produkzioarekin eta, orokorrean, gizarte sistemarekin dituen harremanak.

Esate baterako, Euskal Herriko lan eta produkzio egituraren benetako beharrak aztertu eta hezkuntza sistemaren diseinuarekin alderatuz gero, laster konturatuko gara euren arteko harremana erabat desorekatu dagoela. Alde batetik, lan merkatuak ez ditu eskatzen edota onartzen tituludun gehiago zenbait karreratan, eta, hala ere, unibertsitateek beren horretan segitzen dute eta aurre egiten diote larriagotzen ari den masifikazioaren arazoari. Bestetik, paradoxa bat: egungo langabezia maila duen gizarte honetan enpresek ezin dituzte zenbait lanpostu bete, ez daudelako behar adina profesional lanbide heziketa sisteman.

Irtenbideak, konplexuak iruditu arren, begi bistakoak dira: ikasleak unibertsitateko eta lanbide heziketako beste espezialitate batzuetara bideratzea, eskaintzak eta eskariak bat egiteko, eta gazteei lan aukera handiagoak eta hobeak ahalbidetzeko; produkzio eta heziketa sistemen elkar ezagutza eta harreman estuagoa bultzatzea; prozesuan parte hartzen dutenen lana eta jarduerak berriro definitzea; oinarriko prestakuntza sendoa bermatuko duten tresnak ezartzea; eta, orokorrean, eskariaren arabera lan prestakuntza erraztuko duen guztia bultzatzea.



Iñaki Goirizelaia
EHUko Enpresarekin Harremanetarako errektoreordea

Batzuetan unibertsitateari egotzen zaio bera dela, neurri handi batean, gure gazteak prestatzen zenbait urte pasa ondoren, beren titulazioari egokitutako lana aurkitzeko gai ez izatearen erantzule. Esaten zaigu gure unibertsitatea errealitate urrun dagoen mundu batean bizi dela. Eta askotan honelako gauzak entzuten ditugu: "Lanbide heziketako ikasle guztiek lanpostua lortzen dute, eta ikusi zenbat unibertsitario dauden langabezian".

Baieztape horiek arinegi egiten dira eta ez dira guztiz egia. Lanbide heziketako prestakuntza, batez ere, tekniko da. Beraz, konparaketa hori unibertsitatearen antzeko eremuekin egin beharko genuke, eta esan daiteke gaur egun ia ez dagoela langabeziarik titulu teknikoak duten gure ikasleentzat. EHUren titulazio teknikoek modu egokian eta enpresen beharrei egokituta prestatzen dituzte ikasleak. Horren adierazle da enpresek ikasle horiek kontratatzen dituztela.

EHU gogo biziz saiatzen da unibertsitateen eta enpresen arteko harremana egunez egun hobetzen, eta ikasgelatik lan merkaturako bidea errazten. Nolanahi ere, enpresari eta gizarte-eskaerei begiratzeak ez du esan nahi EHUK ahaztu behar dituenik karrera teknikoek bezain lan aukera garbiak ez dituzten ikasketak. Jakina, herri bat ez da eraikitzen injineru edo biokimikoekin bakarrik. Filosofoak, psikologoak... behar dira. EHU EAeko unibertsitate publikoa da eta titulazio guztien eskaintza arrazionala egin behar du.



Javier Iñiguez del Val
EGAILANeko zuzendari nagusia

1996/1997 ikasturtean EAEn 91.157 lagun matrikulatu ziren unibertsitatean eta 39.197 bakarrik lanbide heziketan. Europako herrialde gehienetan, aldiz, bi kopuruak gertuago daude elkarrengandik, eta korrelazio garrantzitsua erakusten dute: zenbat eta ikasle gehiago lanbide heziketan, orduan eta txikiagoa langabezia tasa. Horrenbestez, zer ikasi aukeratzeko orduan ongi asko aztertu behar da ikasketa bakoitzak zer nolako aukerak ematen dituen lanen bat aurkitzeko. Hortaz, gaur egungo eta datozen hamarkadetarako aurreikusitako lan-egitura aintzat harturik, gomendagarria da ikasleek beste aukera bat egitea, eta lanbide heziketari dagokion portzentaia handitzea.

LANGAIren datuen arabera, une honetan eskaintzen diren lanpostuak lanbide heziketako honako espezialitateetakoak dira: makina-erraminta, fabrikazio mekanikoa, administrari ikasketak, industri elektronikoa, informatika-kudeaketa, elektrizitate-instalazioak eta linea elektrikoak, trokelgintza eta moldeak, komunikazio-elektronika, ostalaritza...

LANGAIren datuen arabera, une honetan eskaintzen diren lanpostuak lanbide heziketako honako espezialitateetakoak dira: makina-erraminta, fabrikazio mekanikoa, administrari ikasketak, industri elektronikoa, informatika-kudeaketa, elektrizitate-instalazioak eta linea elektrikoak, trokelgintza eta moldeak, komunikazio-elektronika, ostalaritza...

Era berean, LANGAIren bitartez gehien eskatutako unibertsitate tituluak honakoak dira:

- Erdi mailako tituluak: mekanikako injinerutza tekniko (IT), enpresa-zientziak, industri elektronikako IT, informatika-kudeaketako IT, industri diseinuko IT, arkitektura teknikoak, sistemen informatikako IT...
- Goi mailako tituluak: ekonomi eta enpresa-zientziak, informatika injinerutza, sistema informatikoak, ekonomia, industri injinerutza, zuzenbidea, psikologia, telekomunikazio injinerutza, soziologia...



Xabier Agirre Elorza

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Plangintzetarako aholkularia

EAEn aplikatzen ari den hezkuntza-erreformak bigarren hezkuntzaren aldaketa sakona dakar, eta honako alderdiei eragingen die:

– Oinarritzko prestakuntza guztientzat, derrigorotasun aldia 16 urtera arte luzatuz, bizitza osorako ezagupen-pasaportea izan dadin.

– Lanbide-heziketa berarizkoa, erdi mailako eta goi mailako ziklotan antolatuta. Erdi mailakoetara sartzeko, beharrezkoa da oinarritzko prestakuntza beterik izatea, batxilergo sartzeko baldintza bera, alegia.

– Lehengo OHO bukatzean sortzen zen bide bikoitza desagertu egiten da beraz, baita ikasketak jarraitzeko aukera ezberdintasunak ere, eta horrek lanbide heziketan zituen eragin negatiboak.

– Prestakuntza zikloen planifikazioan prestakuntza praktikorako aldi bat sartu da, lantegietan egitekoa, lan merkatuan kokatzeko aukerak areagotzeko.

– Goi mailako lanbide heziketan sartzeko, batxilergo titulua behar da.

Planteamendu hori guztia Lanbide Heziketako Euskal Planak (LANBIDEZ izenekoak) indartu du, eta plan hori EAeko estamentu eta erakunde ekonomiko eta sozialen artean hitzartu da. Planteamendu berri horrekin espero izatekoa da datozen urteetan EAEn bigarren hezkuntzaren ondoren lanbide heziketa hautatzen duten ikasleak %40tik gora izatea, eta unibertsitateko zientzia eta teknologia arloek %40ko muga hori gainditzea, EHUko gainerako ikasketekin alderatuta.



Nieves Garcia del Moral

Baikara-ko lehendakaria (Gipuzkoako Euskal Eskola Publikoko Ikasleen Guraso Elkarte)

Unibertsitatea edo lanbide heziketa aukeratzeari buruz baldintzatuta dago, ez ikaslearen nahi edo gaitasunengatik bakarrik, baita aurreiritziengatik ere. Euskal Herriak, Gipuzkoak batez ere, merezitako ospea izan du lanbide heziketan eskainitako ikasketen

kalitateagatik, nahiz eta duela gutxira arte pentsatzen zen lanbide heziketa, nolabait esateko, unibertsitatera joan nahi eta ezin zuten ikasleen zokoa zela. Egoera horrek desoreka handia sortu zuen hezkuntza sisteman, eta, ondorioz, masifikazioa unibertsitatean.

Duela gutxi abian jarritako hezkuntza sistemaren erreformaren helburu nagusietako bat egoera hori aldatzea da, derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatuz, ikasleei gero eta goizago ikasketak eskainiz eta, garrantzitsuenak, lanbide ikasketen diseinu berria industria sarearen eskarira hobeto egokituz.

Baina, gurasoen ikuspegitik, hori ez da nahikoa izango egoera orekatzeko, proposatutako aldaketek gain ez badira garaiz martxan jartzen garantia sozialeko programa zehatzak, araututako hezkuntza sistemaren eskaerak betetzen ez dituzten ikasleentzat. Hori guztia erronka bat da ezartzen ari den sistemak arrakasta lortzeko.

Pello Ellakuria Pujana

Euskadiko Eskola Kontseilua -
ren lehendakaria



Garapen teknologikoa ezinbestekoa da edozein gizarte modernoren biziraupena ziurtatzeko; horretarako, gizarteak lanbide heziketa berriztatua, zalua eta kalitatezkoa ahalbidetu behar du, gizartearen begirunea duena eta inguruko eskaera produktiboei aurre egiteko modukoa.

Ikuspuntu batzuetatik, zientzia-teknologia-enpresa trinomioa azpimarratzen da. Bistakoa denez, nazioen garapenean benetako motorea da ikerketa. Baina horrek ez du esan nahi ospea eta prestigioa lortu gura dituen orok unibertsitatera joan behar duenik. Egia da enpresek gaitasun kritikoa eta geroari begirako ikuspegi estrategikoa duten ikertzaileak behar dituztela, baina unibertsitateak ez da lantegi bilakatu behar, eta enpresetako industri beharri zuzenean aplikatu dakioken jakinduria praktikoa hutsa bantzeaz arduratu. Irakaskuntza unibertsitarioaren eta ez unibertsitarioaren ekimen esparruak argi eta garbi banandu beharko liriteke: bata ez da bestea baino hobea.

Guraso asko zapuzturik sentitzen dira, beraiek ez dutelako aukerarik izan unibertsitate ikasketak egiteko; beraz, seme-alabek horrelako ikasketok egitea nahi izaten dute, ustezko gizarte prestigioa dutelako. Askotan ez gara konturatzen seme-alaba horiek ez dutela interesik edota abstrakzio gaitasunik unibertsitate ikasketak arrakastaz amaitzeko.

Ignacio Lakunza

Mondragon Unibertsitateko
errektorea



Egoera askotan, batik bat ikasketa ertainen gehiegizko eskaintza dagoen tokietan, lanbide heziketa azken aukera edo baliabidetzat baino ez da hartzen, eta hori ez da zuzena. Beste inguru batzuetan, gurean esate baterako, lanbide heziketak tradizio handia du eta ez da lehia gogorrik izaten. Gurean gertatzen den paradoxa zera da: enpresa askok nahiago dituztela lanbide heziketa egin duten teknikariak.

Gure ustez, ikasketa batzuk egiteak ez luke besteak baztertzea ekarri behar, hau da, antzeko adinetako etapak direnez, batxilergoa egin duen 18 urteko ikasle batek bi urteko iraupena duen Goi Mailako Prestakuntza Zikloa edo hiru urteko lehen Unibertsitate Zikloa egin ditzake. Gure iritziz, sistema ahalik eta gehien malgutzeko bideak eskaini behar dira, bide bizkorretik (batxilergoa) edo motelenean (heldutasun handiagoa lortu ahal izateko), lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasketak lortzeko. Azken finean, esaten ari garena zera da: une batean denbora-galtzea uste duguna epe luzera oso emankorra izan daitekeela.

Hona hemen beste hausnarketa bat: lanbide heziketako zentroen dinamikaren ondorioz, prestakuntza zikloetan unibertsitate zikloetan baino alternatiba lehiakorragoak eskainiko dira lan-munduan sartzeko.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

Herritarrei erantzuteko bulego integrala. Udal leihatila bakarra

Administrazioko Lanabesak bildumaren barruan, HAEEK ondorengo eskuliburua argitaratu du berriki: *Herritarrei erantzuteko bulego integrala diseinatzeko eskuliburua. Herritarrei erantzuteko zerbitzua / 010 telefonoa. Irungo udaleko esperientzia*. Argitalpen hori dela eta, erakunde hori berriz ere nirekin harremanetan jarri da, era horretako bulego batek nola diharduen eta zein printzipio dituen ahalik eta laburren azaltzeko.

Zergatik ez dago udaletan herritarrei edo bezeroei erantzuteko bulegorik, banku edo aurrezki kutxetan izan ohi dutenez? Banku edo aurrezki kutxa bateko bulego batera dena delako eragiketa egitera joaten garenean, oso arruntak iruditzen zaizkigu ondorengoak:

- Txandak antolatzeko sistema izatea (harategi edo arrandegietan bezala) eta sistema horrek zein leihatilatara joan behar dugun esan arte zain egotea.
- Leihatiletako edozeinetan konpontzea gure arazoa, egin beharrekoa edozein eratako eragiketa izanda ere (dirua sartu edo atera, kontu korrontea edo libreta ireki, ordainketak helbiderratu, transferentziak etab.).
- Egiteko asmoa dugun eragiketa hori momentuan bertan konpontzea, kasurik gehienetan behintzat.
- Azkar erantzungo digun pertsona bat izatea, herritar edo bezeroekin nola jardun badakien pertsona bat izatea.
- Erakundearekin egin beharreko edozein gestiori buruzko informazioa jasotzea.
- Egin beharreko dena delako gestioa korapilotsua baldin bada (mailegua eskatzea edo antzeko zerbait), nora eta noiz joan behar dugun esatea.
- Eragiketa batzuk egin ahal izateko, kutxazain automatikoak izatea, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan.
- Eta abar.

Baina udaletxera joaten garenean, egoera oso ezberdina izaten da. Zergatik ezin dugu antzeko zerbitzurik eskaini udalek? Zer dago gurea bezalako antolaketa-ereduaren atzean?

Eredua

Gorago egindako galderei erantzuteko, antolaketa-eredua zein den ikusi behar dugu, hor baitago erantzuna. Gaur egun sarritan esaten da administrazioak herritarren zerbitzura egon behar duela, baina hori hala izateko, antolaketa-eredua aldatu eta herritarren premietara egokitu behar dugu; eta hori egiteko lehenbiziko pausoa, nire ustez, herritarrei erantzuteko bulego integrala (edo leihatila bakarra deitutakoa) diseinatu eta abian jartzea da.

Herritarrei erantzuteko Irungo zerbitzua bulego modernoa da, erdialdean dago eta udaletxera jotzen duten herritarren eskariaren %90ari erantzuteko gauza da.

Nola lortzen da hori?

- Udalaren eskumeneko arloetan herritarrek gehien eskatzen dituzten argibide, izapide edo kudeaketa-lanak zerrenda batean jarri eta aztertuta.
- Eragiketa horiek guztiak herritarrei erantzuteko bulego integralaren esku uztea erabakita, udaleko sail eta zerbitzuekin ados jarri ondoren.
- Prozedimenduak aztertu, eskuz egiteko moduan eta erraztuta jarri, kudeaketa-lan eta izapide arruntenen agiriak berriz diseinatu eta homogeneizatuta eta agiri horiek kudeatzeko modua informatizatuta.
- Informazioaren datu-base bakarra sortuta udaletxe osorako, eta datu-base hori mantentzeko sail guztien lankidetzaz izanda.
- Herritarrei erantzuteko bulego integraleko langileak aukeratu eta horiei prestakuntza emanda; horrela, herritarrei erantzuteko zerbitzua profesionalizatzea lortzen baita.
- Gainerako udal zerbitzuen laguntza, parte hartzea eta lankidetzaz lortuta.
- Herritarrei erantzuteko ordutegia zabalagoa izanda. Hori dela eta, arratsalde, larunbat eta zubi diren egunetan ere eskaintzen da zerbitzua.
- Harremanak izateko bide berriak eskainita, esate baterako 010 telefono-zenbakia eta internet zerbitzua.
- Eta abar.

Horrela, bulego bakar batean (eta beharrezkoa bada, baita bulego horretatik sortutako adarretan ere) herritarrek udaletxean egiten dituzten eskarien %80/90 biltzea eta konpontzea lortuko dugu.

Jarduteko modua

Irungo herritarrek, udalera jo aurretik, 010 telefono-zenbakira deitzen dute, eta argitu beharrekoa telefonoz argitu edo, beste izapiderekin bat egin behar izanez gero, informazioa eskuratu eta inprimakiak etxera bidaltzeko eskatzen dute, joan-etorrietan ibili beharrik ez izateko.

1.- Telefonoz erantzutea (010 telefonoa)

Irungo herritarrek lehenengo 010 telefono-zenbakira deitzen dute, eta lortu nahi duten informazio, gestio edo izapideari buruz galdetzen dute, dela udaleko zerbitzuren batekoa, dela herriko beste edozein erakunde edo jardueratako kontua. Une

horretatik aurrera, telefono bidezko ondorengo zerbitzuak jarzen dira martxan:

- Hiririari buruzko informazioa (udalekoak ez diren izapideak, garraioa, jarduerak, erakundeak e.a.).
- Udaleko gaiei buruzko informazioa (deialdiak, izapideak, jarduerak, zerbitzuak, ordenantzak, iragarkiak, e.a.).
- Telefonoz egindako izapideak eta etxera bidaltzea (24 ordu baino lehen).
- Idatzizko inprimakiak eta informazioa etxera bidaltzea (24 ordu baino lehen).
- Galdutako gauzak: jaso eta jabeari itzultzen zaizkio.
- Abisuak, matxurak, kexuak eta gomendio edo iradokizunak: horien berri jaso, aztertu eta erantzun egiten zaie.
- Aldez aurretiko hitzordua: udaleko zinegotzi eta teknikariek egoteko txanda eskatzeko aukera da.

Telefonoz ere eska daitezke goian aipatutako zerbitzuak: matxuren berri eman, kexuren bat azaldu, galdutako gauzaren baten berri jaso edo udaleko zinegotzi edo teknikariren batekin egoteko txanda eskatu.

2.- Pertsona batek aurrez aurre erantzutea (leihatila)

Herritarrak egin nahi duena aurrera eramateko bulegora joatea ezinbestekoa baldin bada, premia horri erantzuteko, bulego modernoa izango du hiriarren erdialdean, adituez osatutakoa eta beharrezko tresneria duena. Bulego hori goiz eta arratsaldean egoten da zabalik, eta herritarrek udalari eskatzen dioten informazioa, kudeaketa-lan eta izapideen %90 konpontzeko gauza da.

Udal bulego hori banku edo aurrezki kutxa bateko edozein bulegoren moduan dago antolatuta: herritarrak, bulegoan sartzean, txandari dagokion zenbakia jaso, pantailan agertuko den leihatilara joan (6 leihatila daude, era guztietako lanak egiteko gauza diren pertsonen ardurapean) eta ondoren aipatzen diren zerbitzu guztiak izango ditu aukeran:

- Sarrera-erregistroa: udalera, diputaziora, Eusko Jaurlaritzara, Estatuko gobernura eta horien baitako edozein erakunde publikotara bidali nahi diren agiriei sarrera emango die, eta horrek legezko balio osoa izango du (erakundeen arteko leihatila bakarra deitutako zerbitzua da).
- Berehala erabakitzeke izapideak: herritarrei erantzuteko bulegoan, berehala konpontzeko modukoak diren 60 izapide-motaren zerrenda bat dago herritarren eskura; esate baterako,

obra txikiak, zoru publikoa erabili behar izatea, erroldako bolanteak, hilerrria, etxebizitza, erroldako datuak eguneratzea, zergetarako datuak eguneratzea, ziklomotoreak, OTA txartela, isunak ordaintzeko aukera, kanpainak, deialdiak eta beste hainbat. Horietako zerbitzuren bat eskaintzeko ordaindu egin behar baldin bada, bulegoan datafonoak daude, eta horiei esker, kreditu-txartelarekin edo diruzorro elektronikoarekin ordaintzeko aukera egongo da.

Hauek dira berehala konpontzeko moduko 60 izapideetako batzuk: obra txikiak, erroldako bolanteak, hilerrria, etxebizitza, erroldako datuak eguneratzea, ziklomotoreak matrikulatzea, OTA txartela, isunak ordaintzea eta abar.

• Berehala hartzen ez diren erabakiak: denda edo dena delakoa irekitzeko edo obra handia egiteko baimena ez da berehala ematen, ezinezkoa delako. Kasu horretan, beharrezko informazioa, jarraibideak, inprimakiak eman, eskabidea erregistratu eta tramitazioa zertan den azaltzen zaio eskaria egiten duenari.



- Agiriak konpultsatzea.
- Udalak egindako argitalpenak eta planoak saltzea.

Eta jakina, telefonoz eskaintzen diren gainerako zerbitzuak ere aipatu beharrekoak dira (hiriari eta udalari buruzko informazioa; aldez aurretiko hitzordua, abisuak, kexuak eta gomendio edo iradokizunak, galdutako gauzak eta abar).

Herritarrek kreditu-txartelarekin ordaintzeko aukera daukate.

Bulegoan burututako jarduerak

Udal bulego hau (herritarrei erantzuteko zerbitzua) 1997ko urtarrilaren 2an hasi zen lanean. Bulego horrek burututako jarduera zenbatekoa izan den jakiteko, 1998. urteko lehenbiziko sei hilabeteetan erregistratutako datuen berri emango dugu (kontuan izan behar da Irun 56.000 biztanleko hiria dela):

- 28.906 eskabideri erantzun zaie aurrez aurre (horien %22 arratsaldean).
- 17.397 telefono-dei izan dira.
- 24.208 izan dira berehala konpontzeko izapideak.
- 16.252 aldez aurretiko hitzordu.
- 1.480 abisu, kexu edo gomendio nahiz iradokizun jaso eta erantzun zaie.
- 431 izan dira jaso eta jabeen itzulitako objektuak.

Aurtengo lehenengo sei hilabeteetan, 46.303 zerbitzu eskaini dira, 56.000 biztanle dituen hirian.

Iñigo Marcos
Irungo Udaleko antolaketa zuzendaria

Europako Batasunaren Ituna, Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna

Lehendakaritza, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza
Nagusia
HAEE-IVAP
Vitoria-Gasteiz, 1998
299, 301 or.

Liburu honetan bi itun jasotzen dira: Europako Batasunarena, eta Europako Erkidegoa eratzen duena. Argitalpenak azken berrikuntzak ere biltzen ditu, izan ere, erantsita dauzka 1997ko urriaren 2an Amsterdamen izenpetutako itunak ekarri zituen aldaketak. Nolanahi ere, eta aldaketa horietaz errazago jabetzeko, zati horiek letra etzanez idatzita daude. Liburuan, esanda-koaz gain, protokoloak eta adierazpenak ere sartu dira, eta, horrela, Europako Batasuneko oinarri juridikoaren ikuspegi zabalagoa izateko aukera izango dugu.

Manuale di stile. Strumenti per semplificare

il linguaggio delle amministrazioni pubbliche
Dipartimento della funzione pubblica
Bologna, 1997
169 or.

Italia aldean ere administraziozko hizkera errazteko lanetan dabilta, eta egiten ari diren lanaren emaitza nagusietako bat estilo liburu hau dugu. Liburuak hiru zati nagusi ditu: lehenengoan, testuaren antolaketaren inguruko gaiak, jostura eta lexicoa jorratzen dira; bigarrenean, glosario bat dator; eta azkenik, hirugarrenean, diseinuari eta maketazioari buruzko azalpenak.

Egindako lanaren beste emaitza garrantzitsu bat *Errata Corrige* izeneko CD-ROMa da. Zuzentzaile horrek akatsak zuzentzeaz gain, testuaren irakurgarritasuna ere neurtzen du.

Manual para el diseño e implantación de una oficina integral de atención al ciudadano. Servicio de atención al ciudadano/ Teléfono 010. La experiencia del Ayuntamiento de Irún

Iñigo Marcos Sagarzazu
HAEE
Vitoria-Gasteiz, 1998
264 or.

Hona hemen Irungo Udalean abian jarri duten zerbitzu berri bat. Badakigu herritarrari gehien interesatzen zaion gauzetariko bat administrazioak azkar eta ondo atenditzea dela, hau da, egunero sortzen zaizkion arazoak ahalik eta lasterren eta ondoen konpontzea. Bada, liburu hau benetako esperientzia batean oinarritzen da, eta beraren berri ematen digu: herritarrari erantzuteko bulegoa sortu aurretik zegoen egoera, hartutako erabakiak, egitasmoa bera, lana aurrera ateratzeko beharrezko baliabideak, eta azkenik, lan hori nola egin den eta zer-nolako emaitzak eta ondorioak lortu dituen.

La modernización de las Administraciones Públicas en España. Guía de actuaciones y estrategias

Galofré, A.
Escola Galega de Administración Pública
Santiago de Compostela, 1997
132 or.

Administrazioa berritzea eta eraginkorrago bihurtzea izan da askoren helburua azken urteotan, eta hori lortzeko asmoz, hainbat saio egin dira han-hemenka. Oraingoan aurkezten dizuegun liburu hau modernizazio horren inguruko gida bat da, eta bertan, irakurlearentzat interesgarriak izan daitezkeen ikuspuntuak, tresnak eta teknikak eskaintzen dira. Hori guztia gutxi balitz, norberak informazio gehiago eskuratzeko bidea ere irekitzen du, esperientzia interesgarri batzuk jakinarazten baitizkigu. Lehiakortasuna, produktibitatea eta kalitatea dira behin eta berriz liburuan agertuko zaizkigun hitzak.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Vitoria-Gasteiz, 1998
272 or.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea 1989koa dugu, baina iaz aldaketa batzuk izan zituen. Aurtengo argitaraldi berri honetan lehenengo testua eta aipatutako aldaketa horiek jasotzen dira. Esan beharrik ez dago ezinbesteko liburua dela bai administraziozko langileontzat bai oposizioak prestatu nahi dituztenentzat.

Diccionario de Municipalismo

Herrera, F.
Alfa Delta
Madrid, 1998
343 or.

Udalaren funtzionamendu, antolamendu eta eguneroko jardunarekin zerkusia duten hitzak edo terminoak argitzen dira hiztegi honetan. Tresna baliagarria da, hortaz, ezezagunak zaizkigun hainbat eta hainbat kontzeptu ulertzeko. Bestalde, hiztegiak gainera, laburduren zerrenda, organigramak eta oinarritzko legedia ere badakartza.

Lan-poza eta enparauak

1982ko ekainaren azken aldean edo uztailaren hasieran Eusko Jaurlaritzako lanpostu baterako azterketetara aurkeztu nintzen. Etorri sasoiz Gasteiza, bilatu tokia eta, ordua jo zain geundela, aspaldian ikusi gabeko lagun batekin topo egin nuen. Elkarri “aspaldiko!”, “zer moduz?”, “nolatan ba hi hemen?”, “azterketa egitera etorrira”, “ni azterketak zainzera berriz” eta horrela jardun ondoren, badiost:

– Oso gustura naiabilek Jaurlaritzan. Lan-giro ederra diagu, jendea elkarri laguntzeko prest zegok beti. Benetako lagunartea. Hemengo jendea ez duk Estatuko funtzionarioak bezalakoa ...

Nik nire artean “hi ez hintzen, bada, asko laguntzekoa lehen behintzat”, ... ez zen-eta. Geure kontu horietan ari ginela neska bat hurbildu zitzaigun eta nire lagunari:

– Aizu, zatoz D gelara, oharrak arbelean idaztea komeni da-eta.

Eta gure lagun horrek:

– Nik orriak ekarri ditut eta zerrendak ere jarri ditut gela honetan. Dena nik egin behar al dinat ba!

Eta ez zen joan batere “Joxe langile” halakoa! Nik ez nion ezer ere esan.

.....

Ordua baino pare bat minutu lehenago sartu nintzen gelan, eta bat ezagutu nuen, beste inor ez. Harekin bilera batean izan nintzen ia urtebete lehenago. Kasu egin nion, baina motxean. Eta azterketa. Ordu bata t’erdietan edo irten genuen bazkaldu eta atzera ere itzultzeko, arratsaldean ahozko froga genuen eta. Ezaguna eta biok ia batera atera ginen. Nik ez nuen ezagutzen Gasteizko alde hura eta ea inguru hartan jatetxerik bazegoen galdetu nion, eta elkarrekin egin genuen bide zati bat. Orduan hau esan zidan erdi kexu, erdi axolagabe:

– “Etorri, etorri gaituk, baina hau aurretik erabakia zegok”.

Hura hartu egin zuten eta harrezkero lan asko eta ondo egina da euskaldun guztion onerako. Ni ez ninduten hartu orduan.

Badituzte egun hartako beste bi kontakizun ere. Hurrengo batean agian..

Bihar eta berandu

Behin, nire lagun bat administrazioko bulego batera joan zen; goizegi joan zen ordea eta itxita aurkitu zuen. Orduan, ordutegia begiratzera joan zen ze ordutan zabaltzen zuten jakiteko.

Harrituta, zur eta lur gelditu zen ordutegiari begirik ezin kendurik, gaztelaniatik euskarara eginiko itzulpena irakurtzean. “Horario de visitas: mañana y tarde” delakoa honela aurkitu zuen itzulita: “Solosaldeen ordutegia: bihar eta berandu”.

Benetan gauza bitxiak gertatzen dira gero euskal administrazioan!

Iñaki Urkidi (Gernika)



Zuen istorioen zain gauzkazue ondorengo helbideetan:

**Administrazioa euskaraz
Eusko Jaurlaritza
Wellingtongo dukearen kalea 2
01010 Vitoria-Gasteiz**


Faxa: 945 -187603

**Posta elektronikoa:
webivap@ivap.es**



A b a r a s k a

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbakiaren inguran kokatu behar dira. Erantzun bakoitzaren lehen letra zenbakiaren gainean doa beti. Gogoan hartu hitzak ordu orratzen arabera bideratu egin behar direla.



LUMA

1. Hertsia. 2. Ahoaren azpiko mutur. 3. Antzeko. 4. Kolore beltzaren ikurra.
 5. Iparraldean, izanak. 6. Inbutuak. 7. Egin arazi. 8. Beldurti. 9. Lekuak.
 10. Zein eguneko? 11. Arabako hiria. 12. Pixa, txiza. 13. Sagarra txikitzeko tresna.
 14. Lohia, ez garbia. 15. Irakiten ari da. 16. Nabarmen.

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/41 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

H i e r o g l i f i k o a



LUMA

Lortu zenuten zerbait?

S o l u z i o a k

H i e r o g l i f i k o a

1. Estuak. 2. Kokots. 3. Pareko.
 4. Itatza. 5. Ukanak. 6. Onllak.
 7. Eragin. 8. Koldar. 9. Tokiak.
 10. Noizko. 11. Laudio. 12. Gernua.
 13. Dolare. 14. Zikina. 15. Dirak.
 16. Nabari.